

# Auzoa, auzo

DONOSTIAKO PARTE ZAHARREAN BIZI AUZO ELKARTEAK 2020EAN EGINDAKO GIDA



Parte Zaharrear Bizi  
**AUZO ELKARTEA**

Egilea eta Argitaratzailea: Parte Zaharren bizi auzo elkartea

Lege gordailua: D 00167-2020

2020ko otsaila

# SARRERA

Esku artean duzun hau informazio Gida bat da. Bertan jasota daukazu gaur egun, 2020an, pertsonen, jarduera ekonomiko eta komertzialen eta Donostiako Udalaren arteko bizikidetzaren arautzen duten oinarriko araudi eta legeei buruzko informazioa, baita jasaten ditugun arazo gogaikarriei buruzkoa eta arau hausteak izanez gero jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa ere.

Parte Zaharrean Bizi Auzo Elkarteak 2012an jaio zen, auzoko bizilagunen bizi baldintzak hobetzeko asmoz.

Ez daukagu lege eta arauen gaineko ezagutza espezifikorik, baina, elkarteak sortu zenetik, etengabe jo behar izan dugu horietara.

Legeak ez dira neutroak, badakigu. Ikusi dugu udal ordenantza berri batzuk gutxi batzuei gainbalioak eta onura pribatuak dakartzkieten politiken intereserako onartu direla, nahiz eta kaltegarriak izan bizilagun gehienek osasunerako eta bizi kalitateko, baita auzoak hain beharrezkoak duen kohesio sozialerako eta haren nortasun historiko zein kulturalerako ere.

Espero genuen, behintzat, onartutako arau horiek errespetatuko zirela: Udalak kontrolatu egingo zituela ordenantzen arau hausteak eta gogora ekarriko zirela arau hausteei zer egin dezaketean eta zer ez. Baina Udalari "ahaztu" egiten zaio, oso maiz, ordenantza horiek izan badirela, eta haren politikan nagusi da pasibotasuna edo/eta tolerantzia, jarduera ekonomiko batzuen mesedetan eta auzoan bizi garenon kalterako.

Hortaz, Elkartearen lan nagusietako bat Udalari bere betebeharrak gogoraraztea, arau hausteak salatzea eta araututa dagoena bete dadin eskatzea da. Ahalegin horrek ez du emaitzarik ematen batzuetan, eta, ondorioz, Arartekoari babesa eskatu behar izan diogu, edo epaitegietara jo behar izan dugu. Baina hori beste kontu bat da.

Udal ordenantzak eta legeak ikertzea, arazoak arautzen dituzten artikulak aurkitzea, horiek interpretatzea, atalka sailkatzea, etab. ez da lan erraza, eta denbora behar izaten da. Hori dela eta, baliagarria eta beharrezkoa iruditu zitzaigun gure salaketetan behin eta berriz erabili ditugun artikulak dokumentu batean biltzea, gure lana eta zerbaiten legezotasunari buruzko zalantzak izan ditzakeen edonoren errazteko eta bizilagun guztiei bitartekoak emateko, beren eskubiak babes ditzaten.

Galdera-erantzun formarekin jaso ditugu ostalaritzari (ordutegia, terrazak, eguzki oihalak, irekiera berriak, etab.), saltokiei (espazio publikoaren okupazioa), zamalanei (mugikortasuna), etxebizitza turistikoari, hondakinen bilketari eta zaratari buruzko kontuak, eta horiek arautzen dituzten arau eta ordenantzetako artikulak adierazi ditugu.

Argitu beharra dago indarrean dauden araudien aplikazio eremua ez dela beti izaten auzo osoa. Araudi batzuek auzo osoan dute eragina. Beste batzuek, aldiz, auzoaren zati batean, izan Kaia, barnealdeko Parte Zaharra edo Ensantxea.

Galdera batek legezko erantzun bat baino gehiago izan dezake.

Badakigu arauak aldatuz joango direla denborak aurrera egin ahala eta Gida hau zaharkituta gera daitekeela. Aldaketak gertatzen diren heinean, eguneratu egingo dugu gure webgunean: <https://partezaharreanbizi.blogspot.com/>

Esan dugunez, ez gara abokatuak, beraz, baliteke punturen batean hanka sartu izana. Akatsen bat antzematen baduzu, punturen bat nahasia iruditzen bazaizu edo zerbait falta dela uste baduzu, jakinaraz diezaguzu, mesedez ([partezaharreanbizi@gmail.com](mailto:partezaharreanbizi@gmail.com)).

Baliagarria izatea espero dugu.

# AURKIBIDEA

OSTALARITZA .....	5
SALTOKIAK. EREMU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA .....	11
MUGIKORTASUNA PARTE ZAHARREAN. ZAMALANAK .....	12
ETXEBIZITZA TURISTIKOA .....	16
Baldintza orokorrak turismo etxebizitza osoa legeztatzeko edo ohiko etxebizitza batean turismoko erabilerarako gelak alokatzeko .....	18
Gomendio garrantzitsua bizilagun-komunitate guztiei .....	20
HONDAKINAK BILTzea .....	21
ZARATAK. KUTSADURA AKUSTIKOA .....	24
ERANSKINA .....	26

Zk.	Galderak	Kaia	Barneko Parte Zaharra	Ensantxea
-----	----------	------	-----------------------	-----------

## Ostalaritza

<b>1</b>	<b>Zer ordutara arte egon daitezke kalean edaten taberna bateko bezeroek?</b>	<b>22:00etatik aurrera debekatuta</b> dago kalean edatea (terrazetan izan ezik, baimendutako ordutegiaren barruan, betiere). Erabiltzaile edo kontsumitzaileek izan dezaketen erantzukizuna gorabehera, tabernen titularrek eragotzi egin behar dute aipatutako ordu horretatik aurrera bezeroek edariak tabernatik kanpora ateratzea, eta zigorrak jaso ditzakete horregatik. <sup>1</sup>																											
<b>2</b>	<b>Ireki daitezke ostalaritzako establezimendu berriak?</b>	<p><b>Eremu betetzat jotzen dira Parte Zaharra eta ekialdeko Ensantxea</b>, hau da, honako hauek mugatzen duten perimetroa: Kaia (hura barne), Mari eta Ijentea kaleak, Boulevard zumardia (bikoitiak), Erregina Erregeordearen kalea, Salamanca pasealekua (biak barne) eta Urgull mendia.<sup>2</sup></p> <p>Eremu betea izateak ez du esan nahi ezin direnik ireki establezimendu berriak, irekiz gero aurretik irekita dauden establezimenduekiko distantzia jakin batzuk errespetatu behar direla baizik. Auzoan establezimendu ugari dagoenez, praktikan ezinezkoa da gehiago irekitzea.<sup>3</sup></p> <table border="1"> <thead> <tr> <th>Gutxieneko distantziak</th> <th>1. taldekoetara</th> <th>2. taldekoetara</th> <th>3. taldekoetara</th> <th>4. taldekoetara</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>1. taldekoetatik</td> <td>50 m</td> <td>50 m</td> <td>50 m</td> <td>50 m</td> </tr> <tr> <td>2. taldekoetatik</td> <td>50 m</td> <td>50 m</td> <td>50 m</td> <td>50 m</td> </tr> <tr> <td>3. taldekoetatik</td> <td>50 m</td> <td>50 m</td> <td>200 m</td> <td>200 m</td> </tr> <tr> <td>4. taldekoetatik</td> <td>50 m</td> <td>50 m</td> <td>200 m</td> <td>300 m</td> </tr> </tbody> </table> <p>Establezimendu bakoitza talde batekoa da:</p> <p><b>1. taldea:</b> alkoholik gabeko edariak eta elikagaiak zerbitzatzeko baimena duten lokalak / Era guztietako elikagaiak, edariak, ogitartekoak edo janari prestatua saltzen dituzten saltokiak, salmenta automatikokoak barne.</p> <p><b>2. taldea:</b> edari alkoholdunak zerbitzatzeko baimena duten lokalak (musika ekipoentzako baimen berezirik ez dutenak) / jatetxeak (barrarekin edo gabe) / barra irekita duten gastronomia, kultura edo aisia elkarteak (kanpo geratzen dira bazkideentzat mugatuta daudenak) / joko jarduerak, barrarekin edo gabe.</p> <p><b>3. taldea:</b> musika ekipoak erabiltzeko baimena duten lokalak (dantzatokirik edo zuzeneko emanaldirik gabeak).</p> <p><b>4. taldea:</b> musika ekipoak erabiltzeko baimena duten lokalak, dantzakia dutenak edo zuzeneko emanaldiak eskaintzen dituztenak.</p>			Gutxieneko distantziak	1. taldekoetara	2. taldekoetara	3. taldekoetara	4. taldekoetara	1. taldekoetatik	50 m	50 m	50 m	50 m	2. taldekoetatik	50 m	50 m	50 m	50 m	3. taldekoetatik	50 m	50 m	200 m	200 m	4. taldekoetatik	50 m	50 m	200 m	300 m
Gutxieneko distantziak	1. taldekoetara	2. taldekoetara	3. taldekoetara	4. taldekoetara																									
1. taldekoetatik	50 m	50 m	50 m	50 m																									
2. taldekoetatik	50 m	50 m	50 m	50 m																									
3. taldekoetatik	50 m	50 m	200 m	200 m																									
4. taldekoetatik	50 m	50 m	200 m	300 m																									
<b>3</b>	<b>Hortaz, zergatik ireki dira ostalaritzako establezimendu berriak, eremua betetzat jo ondoren?</b>	Ordenantzak horretarako bidea ematen duelako, beste establezimendu batzuekiko distantziak errespetatzen ez diren arren. Ordenantzak baimena ematen du establezimenduak irekitzeko horiek <b>hirugarren sektoreko jarduerak hartzen dituzten eraikinen osagarriak</b> badira; era horretara, zona betea izan arren, McDonald's bat, tabernak eta kafetegia ireki dituzte Bretxa Merkataritza Gunean, taberna-jatetxea hotel batean, taberna zineman edo museoa. <sup>4</sup>																											
<b>4</b>	<b>Zenbat denbora igaro behar du, ostalaritzako establezimendu bati lizentzia ken diezaioten itxita egoteagatik?</b>	Jarduera eten dela egiaztatzen denetik <b>6 hilabete igarotzean joko dira iraungitatzat</b> funtzionamendu lizentziak. <sup>5</sup> Denbora ez da zenbatzen hasten establezimenduak ixten duenetik, Udala jarduna eten egin dela "ohartzen denetik" baizik. Gertatu izan da hainbat urtez itxita egon diren tabernak berriz martxan jarri ahal izan dituztela Udalak esaten zuelako ez zuela jarduera eten izanaren berririk, bistakoa izan arren. Hori dela eta, Elkartearen gomendioa da ostalaritzako establezimendu bat itxi egin dutela jakin orduko Udalean idatzi bat erregistratzea.																											

1 Establezimendu publikoen eta jolasezko jardueren kokalekuak arautzen dituen udal ordenantza. GAO 42. zk., 2004-3-3. 1-bis art.

2 Establezimendu publikoen eta jolasezko jardueren kokalekuak arautzen dituen udal ordenantzaren aldaketa. GAO 103. zk., 2009-6-5. 1. xedapen gehigarria, 2. paragrafoa.

3 Establezimendu publikoen eta jolasezko jardueren kokalekuak arautzen dituen udal ordenantza. GAO 42. zk., 2004-3-3. 4-2. art.

4 Hirugarren sektoreko jarduerak hartzen dituzten eraikinetako ostalaritzako jarduerak bete behar dituzten baldintzak ezagutzeko, ikus Establezimendu publikoen eta jolasezko jardueren kokalekuak arautzen dituen udal ordenantzaren aldaketaren 19. eta 20. artikulua. GAO 103. zk., 2009-6-5.

5 Establezimendu publikoen eta jolasezko jardueren kokalekuak arautzen dituen udal ordenantza. GAO 42. zk., 2004-3-3. 8. art.

Zk.	Galderak	Kaia	Barneko Parte Zaharra	Ensantxea
-----	----------	------	-----------------------	-----------

5	Handitu daiteke eremu bete batean kokatuta dagoen ostalaritzako establezimendu bat?	Hasiera batean 18 m <sup>2</sup> baino gutxiagoko lokalak (eta gehienez azalera hori zutenak) bakarrik handitu bazitezkeen ere, 2009an Udalak aldaketa bat sartu zuen, eta, ondorioz, jatetxeek edo taberna-jatetxeek jantokirako espazioa behin bakarrik handitu ahal izango dute, baldin eta handitze horrek ez badu gainditzen publikoarentzat xedatutako azalera erabilgarriaren % 50 eta behar beste zerbitzu osagarri (sukaldea, biltegia, komunak) badituzte handitze horrek berekin ekarriko duen zerbitzua emateko. <sup>6</sup>		
6	Zona bete batean, jatetxe bat bihur daiteke taberna?	<b>Beheragoko talde bateko</b> jarduera batera <b>aldatzeko</b> aukera dago. <b>Ez, ordea, goragoko talde bateko jarduera batera aldatzekoa.</b> <b>2. taldeko establezimenduetan</b> , kasu bakarrean <b>baimenduko da aldaketa</b> : taberna gisa jarduteko lizentzia badute eta taberna-jatetxe gisa edo soilik jatetxe gisa aritu nahi badute. <b>Jatetxe jarduera uztea ekarriko duen aldaketarik ez da baimenduko.</b> <sup>7</sup> Legezko eragozpen hori dela eta, ezkutuko aldaketak egiten ari dira zenbait jatetxetan, jatetxe izaten jarraitzen dutela esanez nahiz eta haien mahaietan pintxoak zerbitzatzaren diren, baita zenbait taberna-jatetxetan ere, esaten baitute bi erabileretarako guneak bereizten jarraitzen dutela praktikan espazio bera diren arren.		
7	Nola jakin daiteke zer taldetako den ostalaritzako establezimendu bat?	Ostalaritzako lokalek eta ikuskizun publikoen lokalek <b>nahitaez jarri behar dituzte identifikatzeko bereizgarriak</b> , zer taldetakoak diren adierazteko. Etiketa biribila da, eta establezimenduaren sarreran ipini behar dute, kaletik ongi ikusi eta irakurtzeko moduan. <sup>8</sup> Askok dira betebeharrak hau betetzen ez duten establezimenduak.		
				
8	Saltokiek ipin ditzakete eguzki oihalak?	Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Bereziak 3 babes maila ezartzen ditu eraikinetarako. Lehenengo, bigarren zein hirugarren babes mailako eraikinentzat ezarrita dago agerian utzi behar dituztela egituraren elementu bertikalak eta <b>horiei ezingo zaiela atxiki inolako elementurik</b> . Hala bada, establezimenduek <b>ezin dituzte eguzki oihalak jarri</b> <sup>9</sup> (CE.03.1 Boulevard - Mari kalea azpierenmuan izan ezik).		Eraikin baten fatxada elementu komuna da; hortaz, establezimendu batek eguzki oihal bat jarri nahi badu, <b>bizilagunen baimena eduki behar du</b> . Baimenik gabe jartzeagatik salaketa bat aurkezten bada, Udalak ez du jaramonik egiten, eta bizilagunek epaitegietan salatu behar dute.
9	Eta fokuak edo argiak jar ditzakete fatxadan?	Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Bereziaren arabera, <b>fatxadari ezin zaio inolako elementurik atxiki</b> . Berez, Udalak obra lizentziak emateko ezarrita dituen baldintzetan honako hau ageri da, besteak beste: <b>"Debekatuta dago fatxadetan edozein motatako iragarkiak ezartzea, dagokien lerrokatetik 0,25 m atzeraemanda dauden baoben barnealdean izan ezik. Ez da bestelako gorputz irten edo aurreratuak (markesinak, erretaulak edo olanak) eraikitzeko baimenik emango. Errotuluak, fokuak, olanak eta fatxadarenak ez diren gainerako elementuak, hala nola panelak, iragarkiak, kableak eta instalazio kutxak, fatxadatik kendu beharko dira"</b> . Edonork ikus dezake baldintza horiek ez direla betetzen ari.		Eraikin baten fatxada elementu komuna da; hortaz, establezimendu batek zerbait ainguratu nahi badu bertan, <b>bizilagunen baimena eduki behar du</b> . Zerbait baimenik gabe instalatzeagatik salaketa bat aurkezten bada, Udalak ez du jaramonik egiten, eta bizilagunek epaitegietan salatu behar dute.
10	Zerbitzatu al daitezke edariak taberna bateko leihotik?	Bide publiko bateko fatxadara ematen duten <b>leiho</b> edo hutsarteak <b>ezingo dira erabili jendeari edariak zerbitzatzeko</b> . <sup>10</sup>		

<sup>6</sup> Establezimendu publikoen eta jolasezko jardueren kokalekuak arautzen dituen udal ordenantzaren aldaketa. GAO 103. zk., 2009-6-5. 17. art.

<sup>7</sup> Establezimendu publikoen eta jolasezko jardueren kokalekuak arautzen dituen udal ordenantzaren aldaketa. GAO 103. zk., 2009-6-5. 16-3. art.

<sup>8</sup> AGINDUA, 2013ko maiatzaren 15ekoa, Segurtasuneko sailburuarena, ostalaritza eta jendaurreko ikuskizunen lokalen orduetegiaren publikizateari eta identifikatzeko bereizgarriei buruzkoa, 2013ko ekainaren 4ko EHAA, 109. zk.

<sup>9</sup> Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Berezia, GAO, 1997-01-22. 51-1-f art./ 51-2-g art./ 70. art.

<sup>10</sup> Kaiari eta barneko Parte Zaharrari dagokionez: Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Berezia. GAO, 1997-01-22. 84-2-1-2. art.

Hiri osoari dagokionez: Ordenantza, eragozpenak sortzen, osasungarritasun edo higie baldintzak aldatzen edo pertsonen zein gauzei arriskuak sortzen dizkieten jardueretatik herritarrek babesteko udalak nola jokatu behar duen arautzeko (GAO, 1986-02-28). 5.2.1-2. art.

Zk.	Galderak	Kaia	Barneko Parte Zaharra	Ensantxea
-----	----------	------	-----------------------	-----------

11	Zer ordutan itxi behar dituzte terrazak zerbitzatzeko erabiltzen dituzten leihoak?	Terrazak zerbitzatzeko erabiltzen dituzten leihoek <b>itxita egon behar dute 23:00etatik aurrera.</b> <sup>11</sup> Dena den, musika ekipoa edukitzeko eta terrazak instalatzeko baimena duten establezimenduek <b>ezingo dute musika ekipoa erabili terrazako mahaiak eta aulkiak jarrita dauden bitartean</b> , eta musika ekipoa martxan daukaten ordu egian <b>itxita eduki beharko dute leihoko barra.</b>								
12	Zer ordutan itxi behar dira lokal bateko atea eta leihoak?	- <b>Musika ekiporik ez duten establezimenduek 22:00etan itxi behar dituzte atea eta leihoak.</b> <sup>12</sup> - <b>Musika ekipoa duten establezimenduetan</b> , nahitaez eta modu finkoan instalatu behar dute <b>automatikoki ixten den ate bikoitza</b> . Kanpora ematen duten leihoak erabat itxita daudela bermatu behar da. Hortaz, <b>musika ekipoa martxan jartzen duten unetik, ateek itxita egon behar dute.</b> <sup>13</sup>								
13	Nola jakin dezaket zer terraza daukan baimenduta ostalaritzako establezimendu batek?	Terrazen baimenak Eusko Jaurlaritzak kudeatzen ditu: <b>Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza (Kaiko pasealekua 23 – 2. solairua</b> , Kofradia zaharraren eraikina), 943-022970 telefonoa. <b>9:00etatik aurrera.</b> <sup>15</sup>								
14	Zer ordutan jar daitezke terrazak?	Udalaren <a href="#">webgunean</a> <sup>14</sup> baimendutako terrazen zerrenda dago. Horietako edozeinen gainean klik eginda, <b>terrazaren planoak agertu behar du, kokapen zehatzarekin eta denboraldi bakoitzerako baimenduta dituen mahai eta aulki kopuruekin.</b>		9:00etatik aurrera. <sup>14</sup>						
15	Zer ordutara arte egon daitezke jarrita mahai altuak Parte Zaharrean, 5,2 metro baino gutxiagoko kaleetan?	Arrandegi, Iñigo, Fermín Calbetón, San Lorenzo, Esterlines, Aingeru eta Joan De Bilbao kaleetan:		<table border="1"> <thead> <tr> <th colspan="2">MAHAI ALTUAK JASOTZEKO ORDUTEGIA 5,2 METROTIK BEHERAKO KALEETAN</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>LANEGUNAK</td> <td>22:30</td> </tr> <tr> <td>OSTIRAL, LARUNBAT ETA JAI BEZPERAK</td> <td>00:00</td> </tr> </tbody> </table>	MAHAI ALTUAK JASOTZEKO ORDUTEGIA 5,2 METROTIK BEHERAKO KALEETAN		LANEGUNAK	22:30	OSTIRAL, LARUNBAT ETA JAI BEZPERAK	00:00
MAHAI ALTUAK JASOTZEKO ORDUTEGIA 5,2 METROTIK BEHERAKO KALEETAN										
LANEGUNAK	22:30									
OSTIRAL, LARUNBAT ETA JAI BEZPERAK	00:00									

<sup>11</sup> Donostiako jabetza eta erabilera publikoko lurzoruak ostalaritzarako nola okupatu arautzen duen ordenantza. 8-9. art. GAO 67. zk. (2014-04-8).

<sup>12</sup> Zaratek eta bibrazioek sortutako kutsadura akustikoaren kontra Udalak zer egin behar duen arautzen duen ordenantza. 24-3. art. GAO 197. zk. (2000-10-17).

<sup>13</sup> Zaratek eta bibrazioek sortutako kutsadura akustikoaren kontra Udalak zer egin behar duen arautzen duen ordenantza. 24-1. art. GAO 197. zk. (2000-10-17).

<sup>14</sup> <https://www.donostia.eus/info/Centros.nsf/fwHome/Gastronomia/Terrazas/?ReadForm&id=C407816513870&idioma=cas>

<sup>15</sup> Donostiako jabetza eta erabilera publikoko lurzoruak ostalaritzarako nola okupatu arautzen duen ordenantza. 7-1. art. GAO 67. zk. (2014-04-8).

<sup>16</sup> Donostiako jabetza eta erabilera publikoko lurzoruak ostalaritzarako nola okupatu arautzen duen ordenantza. 9-2. art. GAO 67. zk. (2014-04-8).

Zk.	Galderak	Kaia	Barneko Parte Zaharra	Ensantxea
-----	----------	------	-----------------------	-----------

16	Eta gainerako kaleetan, zer ordutara arte egon daitezke jarrita?		TERRAZETAN ZERBITZATZEKO ORDUTEGIA	TERRAZAK JASOTZEKO ORDUTEGIA			
			ASTE SANTUTIK URRIAREN 31RA ARTE				
			LANEGUNAK	01:00	01:30		
			OSTIRAL, LARUNBAT ETA JAI BEZPERAK	02:00	02:30		
			AZAROAREN 1ETIK ASTE SANTURA ARTE				
			LANEGUNAK	23:00	23:30		
		OSTIRAL, LARUNBAT ETA JAI BEZPERAK	00:30	01:00			
17	Zer ordutan itxi behar dituzte ostalaritzako establezimenduak?		ESTABLEZIMENDUAK IXTEKO ORDUTEGIA				
			1. TALDEA	2. TALDEA	3. TALDEA	4. TALDEA	
			EKAINAREN 1ETIK IRAILAREN 30ERA EGUN BEREZETAN (ASTE SANTUA, GABONAK, HERRIKO JAIK) + 2 ORDU				
			LANEGUNAK	23:00	01:30	03:00	05:00
			OSTIRAL, LARUNBAT ETA JAI BEZPERAK	00:30	03:00	04:30	06:30
			URRIAREN 1ETIK MAIATZAREN 31RA ARTE EGUN BEREZETAN (ASTE SANTUA, GABONAK, HERRIKO JAIK) + 2 ORDU				
		LANEGUNAK	23:30	01:00	02:30	04:30	
		OSTIRAL, LARUNBAT ETA JAI BEZPERAK	01:00	02:30	04:00	06:00	
18	Non kokatu behar dira mahai altuak?		Mahai altuak <b>BETI</b> paretaren ondoan kokatu behar dira (ohikoa da arau hori urratzea), eta <b>atarietatik 60 cm-ko</b> tartea utzita. <sup>17</sup>				

<sup>17</sup> Donostiako jabetza eta erabilera publikoko lurzoruak ostalaritzarako nola okupatu arautzen duen ordenantza. 9-1. art. GAO 67. zk. (2014-04-8).

Zk.	Galderak	Kaia	Barneko Parte Zaharra	Ensantxea
19	Ipin daitezke baldak tabernen kanpoan?		8. eta 9. zenbakietan azaldu dugunez, <b>debehatuta dago fatxadari baldak atxikitzea</b> (hainbat establezimenduk ez dute araua betetzen).	
20	Konstituzio plazan edo Boulevarden, bete daitezke arkupeak edo zutabeen arteko espazioak?		Konstituzio plazako eta Boulevardeko <b>atarietan, arkupeetan edo zutabeen artean ezingo da ezarri inolako mahairik (ez mahai osagarririk, ez mahai alturik, ez mahai baxurik), ezta bestelako altzari osagarririk ere;</b> espazio horiek oinezkoen joan-etorrietarako guztiz libre utzi behar dira. <sup>18</sup>	
21	Egon daitezke 2 terraza elkarren ondoan?	Elkarren ondoan dauden bi establezimenduen terrazen artean <b>gutxienez 1 m-ko distantzia</b> utzi beharko da. <sup>19</sup>		
22	Ipin daitezke arbelak terrazetan?	Informaziorako <b>arbel modulu bat</b> ezarri ahal izango da <b>baimendutako terraza perimetroaren barruan.</b> <sup>20</sup> Inoiz ez hortik kanpo.		
23	Pilatu daitezke kuboak, hondakinak... terrazetan?	<b>Terrazetan edo horien alboan ezingo da gorde edo pilatu</b> bestelako produktu edo materialik (kuboak, orgak, plataformak, itzalkinen oinarriak, etab.), ezta instalazioetako hondakinak ere, arrazoi estetikoak eta higienikoak direla eta. <sup>21</sup>		
24	Oholtza bat jarri behar bada, kendu egin behar dira terrazak aldi baterako?	-Aste Nagusian, Donostia Egunean eta ekitaldi kulturaletan nahiz antzekoetan antolatzen diren jaialdi, kontzertu eta gainerako ekitaldi ludikoak direla eta, beharrezkotzat jotzen den ordutegian <b>terrazak kentzeko agindua eman</b> ahal izango da. <sup>22</sup> -Jendetza handiak erakartzen dituzten ekitaldiak direla eta -su artifizialak, kontzertuak, kirol ekitaldiak eta gisa horretako emanaldiak-, oinezkoen joan-etorrietarako traba larria izan litezkeen terrazak <b>kentzeko agindua eman</b> ahal izango da. <sup>23</sup>		
25	Aldamio bat ipini behar bada, utzi daiteke terraza dagoen tokian?	Errealitatea ordenantzarekin bat ez datorren arren, bertan ezarrita dago obrak egin behar direlako, aldamioak ipini behar direlako eta behin-behineko beste arrazoi batzuegatik <b>bertan behera utz daitekeela terrazak jartzeko baimena</b> , egoera hori eragin duen arrazoiak iraun bitartean. <sup>24</sup>		
26	Nork garbitu behar du terraza?	Terrazaren titularraren <b>betebeharra da</b> okupatutako eremua egoera egokian edukitzea garbitasunari, higieneari eta mantentzeari dagokienez, erratza pasatuta eta garbiketak eginda.		

<sup>18</sup> Donostiako jabetza eta erabilera publikoko lurzoruak ostalaritzarako nola okupatu arautzen duen ordenantza. 10-3. art. GAO 67. zk. (2014-04-8).

<sup>19</sup> Donostiako jabetza eta erabilera publikoko lurzoruak ostalaritzarako nola okupatu arautzen duen ordenantza. 11-4. art. GAO 67. zk. (2014-04-8).

<sup>20</sup> Donostiako jabetza eta erabilera publikoko lurzoruak ostalaritzarako nola okupatu arautzen duen ordenantza. 13-8. art. GAO 67. zk. (2014-04-8).

<sup>21</sup> Donostiako jabetza eta erabilera publikoko lurzoruak ostalaritzarako nola okupatu arautzen duen ordenantza. 11-5 eta 14-6. art. GAO 67. zk. (2014-04-8).

<sup>22</sup> Donostiako jabetza eta erabilera publikoko lurzoruak ostalaritzarako nola okupatu arautzen duen ordenantza. 11-10. art. GAO 67. zk. (2014-04-8).

<sup>23</sup> Donostiako jabetza eta erabilera publikoko lurzoruak ostalaritzarako nola okupatu arautzen duen ordenantza. 11-12. art. GAO 67. zk. (2014-04-8).

<sup>24</sup> Donostiako jabetza eta erabilera publikoko lurzoruak ostalaritzarako nola okupatu arautzen duen ordenantza. 11-11. art. GAO 67. zk. (2014-04-8).

Zk.	Galderak	Kaia	Barneko Parte Zaharra	Ensantxea
-----	----------	------	-----------------------	-----------

27	Taberna batek erabil dezake bizilagunen komunitateko patioa biltegi gisa?	Alde Zaharra Birgaitzeko Plana argia da: " <b>Aire librean ezin izango da botila, upel eta, oro har, ontzi edo ontzikirik metatu edo bildu</b> " <sup>25</sup> .		Patioa <b>finkaren elementu komuna da</b> . Taberna batek patioaren erabilera pribatiboa egin nahi badu, horrela aurreikusita egon behar du <b>Eratze Tituluan edo banaketa horizontaleko eskrituran, edo bizilagunek baimendu behar dute</b> (horrek berekin ekarriko luke Eratze Titulua aldatzea, eta <b>denek ados egon behar lukete</b> ). <sup>26</sup> Kasu horietan, interesdunak patioa erabiltzeko eskubidea du, eta hura egoera onean mantentzeko betebeharra. Hau da, <b>ezingo da patioaren egitura aldatu</b> , bertan altzariak, sabaiak, itxiturak, olanak... jarrita, bizilagun gutzien adostasuna izan ezean. <b>Era berean, ezingo da egin zarata sortzen duen eta bizilagunei enbarazu egin diezaiekeen jarduerarik</b> . Patioa erabiltzeko baimenik eskatu ez bazen, bizilagunek bide judizialera jo dezakete. Kontuan hartu behar da bizilagunek denbora tarte luze samar batez ezer esaten ez badute egoera atzeraezina bihur daitekeela, isilbidezko adostasuna izan dela argudia daitekeelako. Eremu komunitarioa bizilagunei itzultzeko eskatzeko ekintzak <b>30 urtera</b> preskribatzen du. <sup>27</sup>
28	Tabernak komunitatearen patioa okupatu du. Egin dezake?	-Patioa Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Berezia <b>indarrean sartu ondoren (1997ko urtarrila) okupatu bazuen: ez. "Gaur egun libre dauden patioak ezin izango dira okupatu ezein oinetan, ez eta sotoan ere"</b> .  -Patioa <b>data horren aurretik okupatu bazuen, baina</b> komunitatearen <b>baimenik gabe:</b> Merkataritzako establezimenduei sei hilabeteko epea eman zitzaien egoera legezkotzeko, adostasuna lortuz jabeen komunitatearekin. Hala egin ezean, patioa hustu behar zuten.  -Patioa <b>data horren aurretik</b> okupatu bazuen komunitatearen <b>baimenarekin</b> . Urtebeteko epea eman zitzaien, baldintza hauek betetzeko: -Sestra gaineko eraikuntzak oin bakarrekoak izatea, ez eraikitzea material hauskorrak (xafla, zura, plastikoa) erabiliz, eta estalki laua edukitzea, garbitu ahal izateko bertara erraz heltzeko modukoa. -Keak kanporatu eta gelak aireztatzeko instalazioak eroanbide hermetiko eta herdoilgaitzen bidez egitea. Eroanbide horiek gutxienez metro bat (1 m) luzatzea eraikinaren gailurreko punturik altuenaren gainetik. Eroanbideak gutxienez 0,50 m urruntzea hurbilen dauden baoen ertzetik. <sup>28</sup>		
29	Eta aire girotua instalatu daiteke patioan?	Aireztapen mekanikorako eta, hala badagokio, klimatizaziorako beharrezko makinak <b>lokalaren barruan instalatu behar dira</b> .  <b>Arauk ezarritakoaren arabera</b> , lokalaren kanpoan instalatuta badaude, <b>instalatu zirenetik 4 urteko epea dago salatzeko</b> . Dena den, 4 urteko epeak ez du <b>inolaz ere</b> baliorik izango Udalak katalogatu dituen edo ondare historiko, kultural eta artistikoari buruzko legeriaren arabera interes kulturalerikotzat izendatuta dauden <b>ondasunei eragiten dieten</b> erabileretarako, partzelatzeetarako eta etxe, eraikin eta instalazioetarako. <sup>29</sup> <b>Hori dela eta, edozein unetan salatu ahal izango da</b> . Eraikin babestuen zerrenda Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Bereziaren IV. eranskinean ageri da. Era berean, zerrendatuta daude Parte Zaharra Monumentu Multzotzat izendatzen duen		Aireztapen mekanikorako eta, hala badagokio, klimatizaziorako beharrezko makinak <b>lokalaren barruan instalatu behar dira</b> . Instalazio horiek lokaletik kanpo bazeuden 2006ko irailaren 20aren aurretik (2/2006 Legea indarrean sartu zen data) edo <b>4 urte baino gehiago igaro</b> badira instalatu zituztenetik, <b>EZIN DA</b> horiek eraistea agindu (onartzen dira). Onartutako

<sup>25</sup> Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Berezia, GAO, 1997-01-22. 86-2-3. art.

<sup>26</sup> Jabetza Horizontalaren Legea, 17.6. art. 49/1960 Legea, 2019ko martxoaren 5ean eguneratua azkenekoz.

<sup>27</sup> Komunitateari itzultzeko ekintza denez, preskribapen epea 30 urtekoa da (Kode Zibileko 1963. art.). Komunitatearen ekintza **auzipetutako pertsonaren aurkako ekintza pertsonal bat** izango balitz, **epea 5 urtekoa** izango litzateke (Kode Zibileko 1964. art.). Okupazioak komunitatearen **adostasuna** jaso bazuen, baina **ez aho batekoa**, erreklamazioa egiteko epea **urtebetekoa** izango (Jabetza Horizontalaren Legea, 18.3. art.).

<sup>28</sup> Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Berezia, GAO, 1997-01-22. Aipatutako 3 kasuak 86-2. artikuluan araututa daude.

<sup>29</sup> 2019ko martxoaren 12ko udal txostena, lokalen kanpoaldean jarritako aire girotuei eta bestelako instalazioei buruzkoa.

Zk.	Galderak	Kaia	Barneko Parte Zaharra	Ensentxea
-----	----------	------	-----------------------	-----------

		dekretuan. <sup>A</sup>		instalazio horiek <b>araudira moldatu beharko dute</b> , berritu, handitu edo finkatu egiten badituzte.
30	Zertan du eragina Parte Zaharra Monumentu Multzo izendatu izanak?	Udalak babes maila horrek eskatzen duenera <b>egokitu behar du hirigintzako udal araudia</b> . Baina egokitzapen hori egiten ez duen bitartean, etxebizitzetan esku hartzeko udal lizentzia orok Foru Aldundiaren <b>aurretiko baimena</b> behar du. <sup>30</sup>		

## Saltokiak. Espazio publikoaren okupazioa

31	Saltokiek atera ditzakete kalera erakusmahaiak edo arbelak?	Udalak onartutako ordenantzatik aurrera <sup>31</sup> atera ditzakete, bai, baina <b>aldez aurretik</b> baimena eskatuta.
32	Non ipin daitezke erakusmahaiak?	Ordenantzak dio establezimenduaren <b>fatxadaren aurrean</b> jarri ahal izango direla <sup>32</sup> , nahiz eta horrek <b>urratu egiten duen indarrean dagoen araudia</b> <sup>33</sup> , fatxadaren ondoan 2 metroko <b>espazio librea uztera behartzen duena</b> . Arartekoak terrazen ordenantzari buruz hartutako erabakiak <sup>34</sup> eta Auzitegi Gorenaren epaiak (159/2019) hala adierazten dute.
33	Zer ezaugarri izan behar ditu baimendutako erakusmahai batek?	-Irekita egoteko <b>ordutegia amaitutakoan establezimenduaren barruan jaso beharko da, eta gehienez ere 22:30ak</b> arte egon ahal izango da kanpoan jarrita. - <b>Debekatuta dago</b> bide publikoan <b>pisatzeko, neurtzeko edo kobratzeko</b> elementuak instalatzea, baita <b>hozkailuak</b> edo <b>soinua sortzen duen</b> beste edozein elementu erakusgai jartzea ere. -Produktuak erakuts daitezke, baina <b>ezin dira saldu establezimenduaren kanpoan</b> . -Erakusmahaiaren egiturak <b>ez du ertz bizirik</b> izango; hanketan <b>gomazko babesgarriak</b> izango ditu, zarata arintzeko, eta <b>ezingo da ainguratu, ez lurtean, ez fatxadan</b> . -Erakusmahaiak, <b>gehienez, 0,50 metroko sakonera eta 1,75 metroko altuera</b> izango ditu, eta <b>erakusmahaiak eta salgaiak, dena kontuan hartuta, ezingo dute 2 metro baino gehiagoko altuera izan</b> . - <b>Elikagaiak</b> lurrarekiko <b>75 cm-ko altueran</b> jarri beharko dira, <b>gutxienez, eta gainerako produktuak, 60 cm-ko altueran</b> . <sup>35</sup> - <b>Ez ditu fatxadaren</b> luzera eta marjinak gaindituko, eta <b>libre</b> utzi beharko du <b>establezimendurako sarrera osoa</b> , eta <b>gutxienez 0,6 metroko tarte</b> utzi beharko du, <b>alde bakoitzean, ondoko atari edo okupazioekiko</b> .
34	Aurretik deskribatutako baldintza horiek oinezkoentzako guneetan ere aplikatuko dira?	Oinezkoentzako guneetarako baldintza espezifikoak aipatzen dira atal batean: <sup>36</sup> a) Establezimenduaren eta eremuaren formaren, instalatzeko elementuaren eta inguruko egoeraren arabera <b>erabakiko da euskarrien behin betiko kokapena</b> . b) <b>Gutxienez 3 metroko pasabide libre bat utzi beharko dute, eta, salbuespen gisa, 2,5 metrokoa</b> , pertsonak eta larrialdietako ibilgailuak igaro ahal izateko. <sup>37</sup> c) <b>Zamalanetarako ordutegia amaitu arte</b> , ezingo dituzte erakusmahaiak edo bide publikoa okupatzeko bestelako elementuak

<sup>30</sup> 68/2019 DEKRETUA, apirilaren 16koa, zeinaren bidez Donostiako (Gipuzkoa) Parte Zaharra kultura-ondasun kalifikatu izendatzen baita, monumentu-multzo kategoriarekin, eta hura babesteko erregimena ezartzen den. Xedapen iragankorra.

<sup>31</sup> Jabari eta erabilera publikoko espazioen okupazioak arautzeko udal ordenantza. GAO, 2019-04-22.

<sup>32</sup> Jabari eta erabilera publikoko espazioen okupazioak arautzeko udal ordenantza. GAO, 2019-04-22. 48-2. art.

<sup>33</sup> VIV/561/2010 Ministro Agindua, otsailaren 1ekoa, eta Eusko Jaurlaritzaren 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa.

<sup>34</sup> "Udalak ostalaritzarako jabari eta erabilera publikoko lurzoruen okupazioei buruzko ordenantza berraztertuko du iragarritasunaren sektoreko araudiari egokitzeko..." / "...berraztertu egin behar ditu eremu osoan eraikinetako fatxadekin lerrotatuta dauden instalazioen baimenak, eta bertan behera utzi behar ditu fatxadaren ondoan edo lurzorua mailan eraikitako muga fisikoki gorputzen duen beste edozein elementuren ondoan dagoen oinezkoentzako bide iragankorra errespetatzen ez duten instalazioak".

<sup>35</sup> Jabari eta erabilera publikoko espazioen okupazioak arautzeko udal ordenantza. GAO, 2019-04-22. 48. eta 49. art.

<sup>36</sup> Jabari eta erabilera publikoko espazioen okupazioak arautzeko udal ordenantza. GAO, 2019-04-22. 49-11. art.

<sup>37</sup> Zabalera horiek ez dute betetzen SUTE KASUETAKO SEGURTASUNARI BURUZKO OINARRIZKO DOKUMENTUAN legez eskatzen dena. (BOE, 2006ko martxoaren 28a).

S15 Atala. Suhiltzaileen esku hartzea. 1.1 Eraikinetara hurbiltzeko baldintzak. 1.a) Bideetan 3,5 metroko zabalera egongo da libre.

1.2 Eraikinen inguruko baldintzak. a) Suhiltzaileek maniobrak egiteko espazio bat izan behar dute, gutxienez 5 metro zabalera.

Zk.	Galderak	Kaia	Barneko Parte Zaharra	Ensantxea
-----	----------	------	-----------------------	-----------

		instalatu, oinezkoen eta larrialdietako ibilgailuen zirkulazioa oztopatzen ez duten eremuetan izan ezik.		
<b>35</b>	<b>Dendek edozein ordutan sal ditzakete edari alkoholdunak?</b>	Edari alkoholdunak bertan kontsumitzen ez diren establezimendu komertzialetan <b>ezingo da edari alkoholdunik saldu edo banatu 22:00etatik 07:00ak bitartean</b> , haien ordutegia edozein izanda ere. <sup>38</sup>		
<b>36</b>	<b>Lokal komertzial batean obretan ari dira. Nola jakin dezaket baimenik baduten eta zertarako baimena duten?</b>	Udalak baimendutako obra <b>espedienteak kontsultatzeko, Hirigintzara</b> jo behar da (San Martin kalea, 48, behea). <b>Espedienteak edonork kontsulta ditzake. Ez badute baimenik edo ez badira ari baimendutakoa errespetatzen</b> , leku berean aurkeztu behar da <b>salaketa</b> .		

## Mugikortasuna Parte Zaharrean. Zamalanak

<b>37</b>	<b>Zer ordutegi dago Parte Zaharrean zamalanetarako?</b>	<b>Lanegunak: 7:00 - 11:30.</b>		
<b>38</b>	<b>Zenbat denbora egon daiteke geldirik ibilgailu bat zamalanak egiteko?</b>		<b>3.500 kilogramora arteko</b> gehieneko karga duten <b>ibilgailuak 20 minutu</b> egon daitezke geldirik, gehienez, eta <b>3.500 eta 12.000 kilogramo bitarteko</b> gehieneko karga dutenak, berriz, <b>gehienez 40 minutu</b> .	Ibilgailu guztiak <b>40 minutu</b> egon daitezke geldirik horretarako erreserbatutako guneetan.
<b>39</b>	<b>Zein dira zamalanetarako guneak?</b>		Zamalanak horretarako erreserbatutako guneetan egingo dira (ikus mapan, horiz). 1.- <b>KONSTITUZIO PLAZA:</b> sarrera Aldamar eta Iñigo kaleetatik, eta irteera Arrandegi eta Iñigo kaleetatik. 2.- <b>KORUKO AMA BIRJINAREN KALEA:</b> sarrera Ijentea kalea -Lasala plaza - Kanpandegi kaletik eta irteera Mari kaletik Ijentea kalerantz. 3.- <b>BOULEVARD.</b> 4.- <b>SAN JOAN (Bretxa plaza).</b>	

<sup>38</sup> 1/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, adikzioen eta droga mendekotasunen gaineko arreta integralari buruzkoa. 31-5. art.

## PARTE VIEJA

CALLES DE CIRCUNDA	
RESERVA DIBIPACITADOR	
RESERVA CARGA / DESCARGA	
OTRAS RESERVAS	
ZONAS CARGA / DESCARGA	
APARCABILIS	



Donostiako Udala



Mugikortasuna

Otsaila 2012 Febrero

Zona DTA 01-0012\_Barrera 0012.dwg



40

Komunitatean obrak egiten ari gara, eta ibilgailu handi bat materiala ekartzera etortzea behar dugu. Zer egin dezakegu?

-Baimena eskatu behar da Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzan (Kaiko pasealekua 23 - 2. solairua), 943-022971 telefonoa.

**3.500 kg-tik gorako baimendutako gehieneko pisua duten edo/eta 2,40 metro zabal eta 6,50 metro luze baino handiagoak diren ibilgailuak ezingo dira ez sartu, ez ibili Parte Zaharrean.**  
Aurrekoa gorabehera, **12.000 kg-ra arteko gehieneko pisu baimendua duen ibilgailu batek Parte Zaharrean sartu behar badu,** udaltzainek lagunduta egin beharko du beti,

Zk.	Galderak	Kaia	Barneko Parte Zaharra	Ensantxea
-----	----------	------	-----------------------	-----------

			<b>aurrez eskaera eginda</b> , eta 10:00ak baino lehen alde egin beharko du Parte Zaharretik. Ordu-tegi hori zabaldu ahal izango da mugatutako eremuaren barruan behar bezala <b>baimendutako</b> obrak eraikuntzako materialez hornitu behar dituzten ibilgailuentzat.	
<b>41</b>	<b>Parte Zaharrean bizi naiz. Sar dezaket autoa Parte Zaharrean?</b>	Kaian autoarekin sartu ahal izateko, bertan <b>errol-datuta</b> egon behar da eta <b>txartel gorria</b> eskatu behar zaio Udalari (eskaera urtero berritzen da).	Bai, zamalanetarako ordutegian (7:00-11:30) eta guneeetan.	
<b>42</b>	<b>Eta zamalanetarako ordutegitik kanpo sar naiteke autoarekin?</b>	<b>Egoiliarak nahiz txartela dutenak</b> (ontzi bat dutenak, adibidez) edozein ordutan <b>sar daitezke</b> beren aparkalekuraino.	Bai (baldin eta Parte Zaharrean errol-datuta bazaude), baina <b>hilean 4 aldiz, gehienez 15 minutuz</b> . Ordu-tegi zehatz batean bakarrik sartu ahal izango da: <b>lanegun bezpera diren jaiegunetan 21:00etatik hasita, ostiral edo jaiegun bezperara arte, 7:00ak arte, bi kasuetan</b> . Horretarako, <b>ESKAERA</b> <sup>39</sup> egin beharko da, autoz sartu nahi den data baino gutxienez <b>5 egun lehenago</b> . <b>Larrialdi kasuetan edo sartu aurretik eskaera egiterik izan ez den kasuetan</b> , sartu eta <b>bi egun ondoren ere</b> egin ahal izango da eskaera.	
<b>43</b>	<b>Adineko pertsona bat naiz eta/edo mugikortasun arazoak ditut. Sar naiteke nire ibilgailuarekin edo eramango nauen beste batekin?</b>	- <b>Baimena eskatu</b> behar da Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzan (Kaiko pasealekua 23 - 2. solairua), 943-022971 telefonoa. -Baimendutako gidaria Kaian bizi ez den pertsona bat izan daiteke. -Baimena urtekoa, seihilekkoa edo behar den denborarako izango da, eta zamalanen ordutegian Kai barrura sartzeko balioko du. -Ordu-tegi horretatik (7:00-11:30) kanpo, zaindariak sartzeko baimena emango du larrialdi bat egonez gero, eta ondoren jakinaraziko dio Kaiko bulegoari.	- <b>Bai</b> . Baimena lortzeko, <b>mugikortasun mugatua justifikatu</b> behar da, baita haren iraupena ere (mugikortasuneko 7, A edo B baremoa edo txosten medikoa). - Baimen horrek eskatzailea <b>bizi den kalera sartzeko</b> bakarrik balioko du. <b>Ibilgailu bati baino gehiagori</b> eman ahal izango zaie (gehienez hiru, mugikortasun arazodun pertsonako); era horretara, zenbait pertsonak izango dute sartzeko baimena, baina baimena duten ibilgailuak <b>ezingo dira aldi berean sartu</b> .	
<b>44</b>	<b>Parte Zaharrean bizita, larrialdi bat izan eta taxi bat behar badut, sar daiteke?</b>		<b>Taxi zerbitzuei sartzan utziko zaie egoiliarak</b> jasotzeko. <b>EZINGO</b> dute Parte Zaharrera sartu <b>ostiral, larunbat eta jai bezperetan 19:00etatik 01:00etara</b> (murrizketa horrek ez du eraginik mugikortasun mugatuko pertsonak garraiatzen dituztenentzat).	

<sup>39</sup> <https://www.donostia.eus/info/udalinfo/tramites.nsf/vTramites/7FF2728AF4EED140C125814500390C4A?OpenDocument&sel=tema&idioma=cas&id=D580485&des=Ciudadan%EDa&cat=Veh%EDculos\Tr%E1fico%20y%20Transporte>

Zk.	Galderak	Kaia	Barneko Parte Zaharra	Ensantxea
45	Zer kaletan aparka dezakete egoiliarrek?	Portaleta eta San Pedro Elizaren arteko eremuan aparka dezakete.	<b>Mari / Soraluze / San Joan</b> (Soraluze eta San Bizente arteko tartea) / <b>San Bizente / Salamanca pasealekua</b> (etxebizitzetatik hurbil dagoen aldean).	
46	Parte Zaharrean daukat garajea, edo aparkaleku erreserbatu baten titularra naiz. Zer egin behar dut zamalanetarako ordutegitik kanpo sartu ahal izateko?	Txartela duena edozein ordutan sartu ahal izango da aparkalekuraino.	- <b>Garajea erabiltzeko eskubidea egiaztatu</b> beharko da. - <b>Baimenak garajera sartzeko eta garajetik ateratzeko ibilbidea</b> bakarrik baimenduko du, eta Parte Zaharraren barruan egoteko gehieneko denbora ez da mugatuta egongo. - <b>Garaje bakoitzeko hiru</b> ibilgailuk lortu ahal izango dute baimena, eta ibilgailu horiek <b>ezingo dira</b> aldi berean sartu.	
47	Negoio bat dut Parte Zaharrean (titularra edo ustiatzailea naiz), eta zamalanetarako ordutegitik kanpo autoarekin sartu behar dut.	Printzipioz, ezin da zamalanetarako ordutegitik kanpo sartu. Egoera berezi eta zehatz baterako baimena eska daiteke Kaiko bulegoan (Kaiko pasealekua 23, 2).	- <b>Aldez aurretik eman behar da</b> jardueraren berri edo, hala badagokio, irekiera lizentziaren berri, edo jarduera legeztatze prozesuan dagoela adierazten duen justifikazioa aurkeztu behar da, eta jarduera bat gauzatzeko Parte Zaharrean bide publikoa okupatzeko baimena justifikatu behar da. -Jarduera horren ustiatzaile izaera <b>egiaztatzeko agiria</b> aurkeztu behar da. -Zamalanetarako ordutegi orokorretik (7:00-11:30) at ibilgailuak <b>erabili behar diren justifikazioa</b> aurkeztu behar da. Behar horrek Mugikortasuneko Zerbitzu Teknikoen aldeko txostena jaso beharko du. -Baimen horrek jarduera kokatuta dagoen kalera sartzeko bakarrik balioko du, eta baimena emateko ebazpenean ezarritako baldintza berezietara mugatuko da (ibilbidea, gehieneko egonaldia, etab.).	
48	Mugikortasun mugatua daukat. Erreserba dezaket aparkaleku bat?	-Aparkaleku erreserbak onartuko zaizkie <b>gurpil-aulkia nahiz eskumakilak behar dituzten pertsoneri, edo mugikortasun baremoan 10 puntu dituztenei</b> , Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Departamentuaren arabera. - <b>Eskatzailea ez bada ibilgailuaren ohiko gidaria, biek etxe berean bizi beharko dute.</b> - <b>Ez da aparkaleku erreserbarik emango</b> familia unitatean <b>etxetik hurbil dagoen garaje plaza bat badaukate.</b>		
49	Edukiontzi bat ipini behar dut, obra bat egiteko.	Obra egiteko <b>lizentzia</b> Udalean <b>eskatu</b> behar da, eta <b>edukiontzia ipintzekoa</b> , berriz, Eusko Jaurlaritzan (Kaiko pasealekua, 23-2).	<b>Lizentzia eskatu</b> behar da Bide Publikoen Sailean.	
50	Egoiliarrentzako aparkalekua.	Auzoko hiru gunetan bizi direnek honela aparkatu ahal izango dute: -aparkalekuen titularrek, erabil daitezkeen hiru aparkalekuetan (Zuloaga plaza, Boulevard eta Alderdi Eder) -"egoiliarrentzako" gunean, 1.1. bineta daukatenean. -Gainerako plazetan, gainerako hiritarrek eta turistekin partekatuz Salamanca pasealekuko (uretik hurbil dagoen aldea) eta Pasealeku Berriko TAO gunean. Egoiliarrek ez direnek egoiliarrentzako plazetan aparkatzen badute, 092 zenbakira deitu behar da, mugikortasuneko agenteek eta udal garabiak ahalik eta azkarren esku har dezaten.		

Zk.	Galderak	Kaia	Barneko Parte Zaharra	Ensantxea
-----	----------	------	-----------------------	-----------

		Kaian bizirik aparkatzeko eremura sartzeko txartela eskuratu dutenak.	<p>Ibilgailuak ibil daitezkeen oinezkoentzako guneko misto bakarrak Kanpandegi kaletik, Karmengo Andre Mariaren plazatik eta Mari kaletik dauden sarrerak eta Boulevardetik Sarriegi plazako garajerainoko sarbidea dira.</p> <p>Koruko Ama Birjinaren kaleko zamalanetarako gunean, egoiliarrek 20:00etatik 08:00etara aparka dezakete lanegunetan, eta 00:00etatik 24:00etara, jaiegunetan.</p>	<p>Bretxako Arrandegi eraikinaren obren ondorioz eta Iñigo kalea eta Orixe Ikastolaren inguruan Ensantxe, San Joan eta Soraluze kaleak oinezkoentzako bilakatzeko lanen ondorioz, nabarmenki aldatuko da eremu horretako mugikortasuna. Aldaketek eragina izango dute egoiliarrek aparkatzeko eremuan, zona horretako mugikortasunean, zamalanetan eta hondakinak uzteko prestatutako guneean.</p> <p>Aldamar kaleko zamalanetarako gunean, egoiliarrek 20:00etatik 08:00etara aparka dezakete lanegunetan, eta 00:00etatik 24:00etara, jaiegunetan.</p>
--	--	---	---	--

## Etxebizitza turistikoak<sup>40</sup>

<b>51</b>	<b>Ostatua pentsio eta hoteletan.</b>	Pentsio eta hoteletako ostatu eskaintza hoteleko ostatu turistikoaren modalitatearen barruan sartuta dago. Euskal Autonomia Erkidegoan honek arautzen du: <a href="#">102/2000 DEKRETUA</a> , <a href="#">maiatzaren 29koa</a> , <a href="#">hotel establezimenduen antolaketa ezartzen duena</a> <sup>41</sup> . Ostatu turistiko mota horren ezaugarriak eta horien jarduera garatzeko baldintzak ez dira <a href="#">Donostiako Udal Ordenantzak</a> jasotzen dituen etxebizitza turistikoaren berdinak. <a href="#">Hiria Antolatzeko Plan Orokorren</a> arabera (artikulu hauek: 7-1-E, 8, 9, 19-2, 59 eta 60), jarduerak udalaren lizentzia behar du irekitzeko, harrera edo atezaintza eduki behar du eta hori lehenengo solairuan bakarrik koka daiteke.		
<b>52</b>	<b>Egon daiteke etxebizitza turistiko bat nire atarian?</b>	<p>Kaia eta Barneko Parte Zaharra A eremuak edo eremu beteak dira, eta, hortaz, <b>debekatuta dago etxebizitza turistiko berriak ezartzea, baita ohiko etxebizitzan logelak erabilera turistikorako alokatzea ere.</b><sup>42</sup></p> <p>Ordenantza indarrean sartu aurretik (GAO, 2018-03-26) udalak emandako jarduera lizentzia zuten eta Eusko Jaurlaritzan erregistratuta zeuden higiezinetan ez du inolako eraginik izan eremua betetzat jo izanak.<sup>43</sup></p>	<p><i>*Bizilagunek etxebizitza turistiko berriak instalatzea nola eragotz dezaketen jakiteko, ikus <b>71. eta 72. zenbakiak</b>.</i></p> <p>Ensantxea B eremua edo eskari handiko eremua da, eta, hortaz, aukera dago, baina hauek dira irizpide orokorrak:</p> <p>-Eraikin osoan gehienez <b>250 metro koadro erabilgarri bideratuko dira bizitegikoak ez diren beste erabilera batzuetarako</b>, sarbidea etxebizitzaren berdina izanik. Ohiko etxebizitzetan logelak erabilera turistikorako alokatzea ez da kontuan</p>	

<sup>40</sup> Etxebizitza turistikoak bizitegi gisa erabiltzen direnen gainean baimentzea zalantzan jarri dute 2 epaik. Horien arabera, Udal Ordenantza Hiria Antolatzeko Plan Orokorren aurkakoa da. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren geroagoko epai batek (1/2020) baliogabetzat jo du Ordenantza. Udal Gobernuak errekurso bat iragarri du eta, beraz, ordenantza indarrean egongo litzateke bitarte baterako, Hiria Antolatzeko Plan Orokorra aldatu arte.

<sup>41</sup> 3-1-b art.

<sup>42</sup> Etxebizitza turistikoaren erabilera eta ohiko etxebizitzetako logelak erabilera turistikorako alokatzea arautzen duen udal ordenantza. GAO, 2018-03-26. 13-1. art.

<sup>43</sup> Etxebizitza turistikoaren erabilera eta ohiko etxebizitzetako logelak erabilera turistikorako alokatzea arautzen duen udal ordenantza. GAO, 2018-03-26. 13-2. art.

Zk.	Galderak	Kaia	Barneko Parte Zaharra	Ensentxea
-----	----------	------	-----------------------	-----------

				<p>hartzten kalkulu hori egitean.</p> <p><b>-Beheko solairuan</b> Hiria Antolatzeko Plan Orokorrean<sup>44</sup> eta Udal Ordenantzan<sup>45</sup> ezarritako kasu eta baldintzetan baimenduko da.</p> <p><b>-Lehen goi solairuan edo antzekoetan</b>, etxebizitzaren sarbide bera duten etxebizitza turistikoak baimenduko dira.</p> <p><b>-Aurreko horien gainetik dauden goi solairuetan</b> etxebizitzaren sarbide bera duten etxebizitza turistikoak baimenduko dira, <b>baldin eta haien azpitik dagoen bakar batek ere ez badu bizitegi erabilera edo ez bada erabilera hori izatea aurreikusten</b> (horiek guztiak bizitegiarena ez den beste erabilera baimendu bat eduki behar dute).</p> <p><b>-Gutxienez 7 solairu (B+6) dituzten eraikinetako goi solairuetan etxebizitza turistiko bakarra baimenduko da</b>, eta beste etxebizitza turistiko bat 6 solairu gehigarri bakoitzeko, solairu gehigarrietako edozeinetan koka daitekeena; kasu horietan <b>ez da aplikatuko etxebizitza turistiko gisa eskatutakoaren azpian bizitegi gisa erabiltzen diren edo horretarako aurreikusita dauden etxebizitzak egotea debekatzen duen baldintza</b>.<sup>46</sup></p>
53	<b>Bada beste udal mugarik etxebizitza turistikoak ezartzeko?</b>		<p>HAPOnen aldaketa zehatzak, Parte Zaharrari buruzkoak<sup>47</sup>, bi urterako indarraldia duenak, <b>debekatu egiten du ostatatzearekin eta ostatu turistikoekin lotutako erabilera eta jarduera berriak ezartzea</b>.</p> <p>Hortaz, Parte Zaharra etxebizitza turistikoak "betetako gune" gisa izendatuta egoteaz</p>	

<sup>44</sup> HAPOnen 59.-60. art.

<sup>45</sup> Etxebizitza turistikoaren erabilera eta ohiko etxebizitzetako logelak erabilera turistikorako alokatzea arautzen duen udal ordenantza. GAO, 2018-03-26. 14-1, a, b, c eta 2. art.

<sup>46</sup> Azken puntu hori (etxebizitza turistikoak baimentzea bizitegi gisa erabiltzen direnen gainean) zalantzan jarri dute 2 epaiak (Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 3 zenbakidun Epaitegiaren 215/2019 eta 223/2019 epaiak); horien arabera, Udal Ordenantza Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren aurkakoa da, eta, hortaz, hori arautzen duen artikulua erabat deuseza izango litzateke. Epai horiek eman zituztenetik, banako batek edo bizilagun komunitate batek beraiengan eragina duen pisu turistikoaren baimenari helegitea jar diezaiokete, hura etxebizitza baten gainean kokatuta badago. Udal Ordenantza aldatu eta HAPOr a egokitu beharrean, Udal Gobernuak iragarri du HAPOr aldatuko duela, ez dadin izan Ordenantzaren aurkakoa. Baina hori gertatzen ez den bitartean, badago baimenari helegitea jartzeko aukera.

<sup>47</sup> <https://www.donostia.eus/secretaria/asuntospleno.nsf/vResolutivald/8F36FF8FF13D094DC125839F0045590F?OpenDocument&id=C511345&idioma=cas>. Behin-behinean onartua, 2018ko maiatzaren 24ko osoko bilkuran, eta 2019ko otsailaren 21eko bilkuran berretsia.

Zk.	Galderak	Kaia	Barneko Parte Zaharra	Ensantxea
-----	----------	------	-----------------------	-----------

			gain, "gune betea" da, halaber, ostatatu emateko establezimendu berriak ezartzeko, izan hotelak, izan etxebizitza turistikoak (azken horiek bai osoak, bai partzialak, logelen bidez).	
--	--	--	--	--

**Etxebizitza turistiko bat edo gelak erailera turistikorako alokatzen dituen ohiko etxebizitza bat legeztatzeko baldintza orokorrak**

<b>54</b>	<b>Nahitaezkoa da Eusko Jaurlaritzan izena ematea.</b>	Nahitaezkoa da Eusko Jaurlaritzan <sup>48</sup> izena ematea, Euskadiko Turismo Enpresa eta Jardueren Erregistroan; bertan, erregistro zenbaki bat emango zaio etxebizitza bakoitzari, eta jardueraren titularrari jakinaraziko zaio. <b>Udalaren jarduera baimenik gabe, Eusko Jaurlaritzako erregistro zenbakiak ez du jarduera gaitzen.</b>
<b>55</b>	<b>Beharrezkoa da Udalaren jarduera baimena.</b>	Nahitaez eskuratu behar da Udalaren jarduera baimena <sup>49</sup> . <b>Eusko Jaurlaritzako erregistro zenbakirik gabe, Udalaren jarduera baimenak ez du jarduera gaitzen.</b>
<b>56</b>	<b>Nola jakin dezakegu etxebizitza bat pisu turistiko gisa legezkotuta dagoen?</b>	- <b>Udalean.</b> Udalak Etxebizitza Turistikoaren Errolda du, behar bezala eguneratua. Errolda horretan, emandako baimenei, altei, bajei eta aldaketei buruzko datu guztiak jasota egon behar dute, eta adierazita egongo da etxebizitzaren kokapena, baita beharrezkotzat jotzen diren gainerako datuak ere. Publizitatea eta gardentasuna bermatzeko, Udalak Etxebizitza Turistikoaren Erroldako datuak zabaltzeko udalaren web korporatiboaren bitartez <sup>50</sup> . Horren ordez, udalaren webgunean eskura daitezkeen gauza bakarrik <a href="#">etxebizitza turistikoaren mapa</a> <sup>51</sup> bat da; hori bakarrik. Era berean, Etxebizitza Turistikoaren atalera dei daiteke (telefonoa: 943-483407). - <b>Eusko Jaurlaritzan.</b> 943-022571 telefonora deituta edo Easo kaleko 10.era joanda (Turismo Ordezkaritza). - <b>Interneten.</b> Eusko Jaurlaritzak Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko webgunean argitaratu du erabilera turistikoaren etxebizitza eta logelen zerrenda <sup>52</sup> .
<b>57</b>	<b>Jardueraren titularrak ez denean etxebizitzaren jabea</b>	Jardueraren titularrak ez bada etxebizitzaren jabea, egiaztatu egin behar da jarduera turistikoaren <b>berri eman diola jabeari</b> . <sup>53</sup>
<b>58</b>	<b>Ondorengo edozein aldaketa jakinarazteko betebeharra</b>	Jardueraren titularrak <b>nahitaez</b> jakinarazi behar dio Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzari erregistratutako datuetan izandako aldaketa oro. Ostatuaren edukiera aldatzea eta jarduera etetea jardueraren funtsezko aldaketatzat joko dira. Titulartasuna, izena edo eskritura sozialak aldatzea ez-funtsezko aldaketatzat joko dira, eta aurretiko jakinarazpenaren bidez adieraziko dira. Funtsezko elementuetan egindako aldaketek berekin badakarte jarduera gauzatu ahal izateko eskakizunetako bat urratzea, titularrak jarduera eteten duela adierazteko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du. <sup>54</sup>
<b>59</b>	<b>Etxebizitza turistikoaren oinarriko antolamendua</b>	Osorik edo logelaka alokatzen diren gorabehera, etxebizitzek <b>komun bat izango dute lau laguneko; komunak konketa, komuna eta dutxaontzia edo bainuontzia izango ditu</b> . Logela baten barruan badago, logela horretan ostatu hartuta daudenek bakarrik erabili ahal izango dute; hortaz, beste komun bat eduki beharko du, gainerako erabiltzaileentzat, eta aipatutako proportzioa errespetatu beharko da. <sup>55</sup>

<sup>48</sup> 101/2018 DEKRETUA, uztailaren 3koa, erabilera turistikoaren etxebizitzari eta etxebizitza partikularretako logelei buruzkoa. 7. art.

<sup>49</sup> Etxebizitza turistikoaren erabilera eta ohiko etxebizitzetako logelak erabilera turistikorako alokatzea arautzen duen udal ordenantza. GAO, 2018-03-26. 20-1. art.

<sup>50</sup> Etxebizitza turistikoaren erabilera eta ohiko etxebizitzetako logelak erabilera turistikorako alokatzea arautzen duen udal ordenantza. GAO, 2018-03-26. Xedapen gehigarria, 1.

<sup>51</sup> <https://www.donostia.eus/ataria/es/web/hirigintza/censo-de-viviendas-turisticas>

<sup>52</sup> [https://www.euskadi.eus/interaccion\\_ciudadania/buzon-viviendas-turisticas-ilegales/web01-tramite/es/](https://www.euskadi.eus/interaccion_ciudadania/buzon-viviendas-turisticas-ilegales/web01-tramite/es/)

<sup>53</sup> 01/2018 DEKRETUA, uztailaren 3koa, erabilera turistikoaren etxebizitzari eta etxebizitza partikularretako logelei buruzkoa. 6-4. art.

<sup>54</sup> 01/2018 DEKRETUA, uztailaren 3koa, erabilera turistikoaren etxebizitzari eta etxebizitza partikularretako logelei buruzkoa. 10-1-2-3-4. art.

<sup>55</sup> 01/2018 DEKRETUA, uztailaren 3koa, erabilera turistikoaren etxebizitzari eta etxebizitza partikularretako logelei buruzkoa. 12-5. art.

Zk.	Galderak	Kaia	Barneko Parte Zaharra	Ensantxea
-----	----------	------	-----------------------	-----------

60	<b>Etxebizitza turistikoaren identifikazioa eraikinaren kanpoaldean</b>	Etxebizitzek erabilera turistikoko etxebizitza edo logela gisa <b>identifikatuko dituen bereizgarri ofiziala ipini beharko dute eraikinaren kanpoaldean</b> , erraz ikusteko moduko tokian. <sup>56</sup> Horrek urratu egiten du Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Berezian fatxadan errotuluak jartzeko debekua (Kaian eta barneko Parte Zaharrean).		
61	<b>Nahitaezkoa da erantzukizun zibileko aseguruua.</b>	Jardueraren titularrak erantzukizun zibileko <b>aseguru poliza</b> bat kontratatu behar du, nahitaez, etxebizitzaren erabiltzaileen edo hirugarrenen osasunean edo segurtasun fisikoan izan daitezkeen kalteak estaltzeko. <sup>57</sup>		
62	<b>Etxebizitzaren berezko oinarrizko baldintzak</b>	Logelak erabilera turistikorako alokatzen dituen ohiko etxebizitza izan ala etxebizitza turistikoa izan, etxebizitzak eskatzen zaizkion <b>baldintzak bete beharko ditu: irisgarritasunekoak, sute arriskuarekiko babesekoak, babes akustikokoak eta bizitegi erabilerari dagozkion gainerako baldintza guztiak.</b> <sup>58</sup>		
63	<b>Bizilagunen atsedena errespetatzea</b>	Erabiltzaileek <b>barne erabilera edo erregimeneko arauak errespetatu beharko dituzte, baita higiezinan ezarrita dauden bizikidetzara arau ohikoak ere.</b> Zehatz esanda, kontuan hartu beharko dituzte higienari, heziketari, bizikidetzara sozialari, janzkerari eta bertako pertsona nahiz ohituren errespetuari buruzko xedapenak, eta, <b>bereziki, bizilagunen atsedenerako eskubidea.</b> <sup>59</sup>		
64	<b>Kutsadura akustikoaren aurkako babesa</b>	Udal Ordenantzan barne inguruneetarako ezarrita dauden gehieneko immisio mailak errespetatu beharko dira. <sup>60</sup> <b>(Ikus 81. zk.).</b>		
65	<b>Zenbat pertsona sar daitezke pisu turistiko batean?</b>	Osorik edo logelaka alokatzen den gorabehera, erabilera turistikoko <b>etxebizitza batek ezin ditu 8 plaza baino gehiago eskaini guztira</b> , horietan barne hartuta berez etxebizitza horretan bizi diren pertsonak. <sup>61</sup> Azaleraren arabera <sup>62</sup> , <b>etxebizitza bakoitzak gehieneko okupazio edukiera dauka.</b> <sup>63</sup> <b>Etxebizitza turistiko batean zenbat pertsona sar daitezkeen jakiteko</b> , Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailean galdetu behar da (Easo kalea 10; telefonoa: 943-022571).		
66	<b>Zer egin behar da, Interneteko iragarkian baimendutako pertsona kopurua baino handiagoa aipatzen bada edo erregistratuta ez dagoen etxebizitza bat iragartzen bada?</b>	<b>Idatziz salatu behar da</b> , bai Eusko Jaurlaritzaren Turismo Sailean (Easo kalea 10), bai Donostiako Udalean (Udalinfo, Easo kalea 41). Komeni da webgunearen helbidea zehaztea eta iragarkiaren pantaila argazki bat eranstea. <b>Elektronikoki salatu</b> , <a href="#">Eusko Jaurlaritzaren salaketa anonimoen buzoian</a> . <sup>64</sup>		
67	<b>Eta pisuan baimendutakoak baino pertsona gehiago sartzan badira edo pisua erregistratuta egon gabe sartzan badira?</b>	<b>Deitu</b> Udaltzaingoari (092).		
68	<b>Jarduera eskaintza komertzializatu egin behar da, eta administrazioari jakinarazi behar zaio.</b>	Higiezin bat etxebizitza turistikotzat edo logelak erabilera turistikorako alokatzen dituen ohiko etxebizitzatzat hartuko da, baldin eta eskaintza turistikoko edozein kanalen bidez eskaintzen edo merkaturatzen bada, edo jarduera turistiko edo ekonomikoa abian jartzeko adierazpena edo jakinarazpena egiten bada udal administrazioa ez den beste edozein administrazioan. <sup>65</sup>		

<sup>56</sup> 01/2018 DEKRETUA, uztailaren 3koa, erabilera turistikoko etxebizitzetako logelak erabilera turistikorako alokatzea arautzen duen udal ordenantza. GAO, 2018-03-26. 6. art.

<sup>57</sup> 01/2018 DEKRETUA, uztailaren 3koa, erabilera turistikoko etxebizitzetako logelak erabilera turistikorako alokatzea arautzen duen udal ordenantza. GAO, 2018-03-26. 6. art.

<sup>58</sup> Etxebizitza turistikoaren erabilera eta ohiko etxebizitzetako logelak erabilera turistikorako alokatzea arautzen duen udal ordenantza. GAO, 2018-03-26. 6. art.

<sup>59</sup> 01/2018 DEKRETUA, uztailaren 3koa, erabilera turistikoko etxebizitzetako logelak erabilera turistikorako alokatzea arautzen duen udal ordenantza. GAO, 2018-03-26. 6. art.

<sup>60</sup> Zaratek eta bibrizioek sortutako kutsadura akustikoaren kontra Udalak zer egin behar duen arautzen duen ordenantza. GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALA. 2000ko urriaren 17a (1. eranskina).

<sup>61</sup> 01/2018 DEKRETUA, uztailaren 3koa, erabilera turistikoko etxebizitzetako logelak erabilera turistikorako alokatzea arautzen duen udal ordenantza. GAO, 2018-03-26. 6. art.

<sup>62</sup> Ostalari kopuruak ezingo ditu gainditu Etxebizitzaren 3/2015 Legearen 62. artikuluan ezarritako ratioak.

<sup>63</sup> 01/2018 DEKRETUA, uztailaren 3koa, erabilera turistikoko etxebizitzetako logelak erabilera turistikorako alokatzea arautzen duen udal ordenantza. GAO, 2018-03-26. 6. art.

<sup>64</sup> <https://www.euskadi.eus/web01-sedeform/es/x43kToolkitWar/form/fdp?procedureId=1013901&tipoPresentacion=1&language=es&formDataPreload=%7b%22idIniciativa%22:%22144%22,%22idTitulo%22:%22144%22%7d>

<sup>65</sup> Etxebizitza turistikoaren erabilera eta ohiko etxebizitzetako logelak erabilera turistikorako alokatzea arautzen duen udal ordenantza. GAO, 2018-03-26. 7. art.

Zk.	Galderak	Kaia	Barneko Parte Zaharra	Ensantxea
-----	----------	------	-----------------------	-----------

69	Zenbat metro koadro izan behar ditu, gutxienez, etxebizitza turistiko batek, legezkotu ahal izateko?	Erabilera turistikoko etxebizitzak ezingo ditu <b>35 m<sup>2</sup></b> erabilgarri <b>baino gutxiago</b> izan, <b>inolaz ere</b> . <sup>66</sup>		
70	Zer baldintza bete behar dira ohiko etxebizitza batean erabilera turistikoko logelak alokatzeko?	Etxebizitzak jardueraren <b>titularren ohiko bizitoki iraunkorra</b> izan behar du, eta horrek <b>bertan erroldatuta</b> egon beharko du. Baldintza hori jarduera garatzen den denbora osoan bete beharko da, jardueraren etetea formalki jakinarazi arte. Etxebizitza gunea sustatzaileak bakarrik erabiliko du. (UO, 4-2a art.) Titularren ohiko bizitoki den espazioa erabilera turistikorako <b>gainerako espazioetatik berezita</b> egongo da. <sup>67</sup> Erabilera turistikorako espazioen azalera erabilgarria <b>ezingo da izan etxebizitzaren azaleraren erdia baino handiagoa</b> , ezta 125 m <sup>2</sup> -tik gorakoa ere, eta gutxienez logela bat eta komun bat izan beharko ditu. <sup>68</sup>		
71	Bereizi daiteke etxebizitza bat erabilera turistikorako?	Etxebizitza bat bereizi eta erabilera turistikoko etxebizitzara bideratzen bada, horrek <b>espazio komunitatik sartzeko ate zuzena eta independentea eduki beharko du</b> . <sup>69</sup>		
72	Udal Ordenantzako murrizketez eta barneko Parte Zaharrerako Plan Orokorren aldaketa zehatzaz gainera, badago etxebizitza turistikoak ezartzea eragozten duen beste legezko araudirik?	Jabetza erregimen horizontalean eraturako etxebizitzaren kasuan, erabilera turistikoko etxebizitzan <b>ezingo da ostatu jarduera gauzatu, jabeen komunitatea arautzen duten estatutu edo arauetan berariazko debekua jasota badago eta horiek behar bezala inskribatuta badaude Jabetzaren Erregistroan</b> . <sup>70</sup> <a href="#">7/2019 Legegintzako Errege Dekretuak, martxoaren 1ekoak, etxebizitza eta alokairuari buruzkoak, aukera ematen du etxebizitzaren alokairua edo erabilera turistikoa <b>debekatzeko</b>, betiere atzeraeraginik gabe, <b>hala erabakitzen badute kuota eta jabe guztien bostetik hiruk (3/5)</b>, eta jada badaudenei edo izan daitezkeenei <b>komunitateko kuota igotzea</b> ere ahalbidetzen du, <b>% 20ko igoera</b>, gehienez ere<sup>71</sup>.</a>		
73	<b>BIZILAGUN KOMUNITATE GUZTIENTZAKO GOMENDIO GARRANTZITSUA</b>	Nahiz eta Kaia eta barneko Parte Zaharra eremu beteak diren (debekatuta dago etxebizitza turistikoak ezartzea eta ohiko etxebizitzetan logelak alokatzea erabilera turistikorako) eta bi urterako debekatuta dagoen turistentzako ostatuarekin zerikusia duten erabilera eta jarduera berriak ezartzea, Parte Zaharrean Bizik <b>gomendio hau egiten die</b> Kaiko, barneko Parte Zaharreko eta Ensantzeko bizilagun <b>komunitate guztiei: bilerak egin ditzatela beren atarietan jarduera debekatzeko (ikus 72. zk.) eta/edo komunitateko kuotak igo ahal izateko</b> jada badirenei (gehienez <b>% 20</b> ) <sup>72</sup> .		

<sup>66</sup> Etxebizitza turistikoaren erabilera eta ohiko etxebizitzetako logelak erabilera turistikorako alokatzea arautzen duen udal ordenantza. GAO, 2018-03-26. 6. art.

<sup>67</sup> Udal Ordenantza. 4-2. art.

<sup>68</sup> Udal Ordenantza. 4-1-2b art.

<sup>69</sup> Etxebizitza turistikoaren erabilera eta ohiko etxebizitzetako logelak erabilera turistikorako alokatzea arautzen duen udal ordenantza. GAO, 2018-03-26. 6. art.

<sup>70</sup> 01/2018 DEKRETUA, uztailaren 3koa, erabilera turistikoko etxebizitzetako logelak erabilera turistikorako alokatzea arautzen duen udal ordenantza. GAO, 2018-03-26. 6. art.

<sup>71</sup> Legegintzako 7/2019 Lege Dekretua, martxoaren 1ekoak, etxebizitza eta alokairuaren gaineko premiazko neurriei buruzkoa. BOE» 55. zk., 2019-03-5. 17.12. art.

<sup>72</sup> Legegintzako 7/2019 Lege Dekretua, martxoaren 1ekoak, etxebizitza eta alokairuaren gaineko premiazko neurriei buruzkoa. BOE» 55. zk., 2019-03-5. 17.12. art.

Zk.	Galderak	Kaia	Barneko Parte Zaharra	Ensantxea
-----	----------	------	-----------------------	-----------

		Jakin dugunez, epai batek ( <b>EDJ 2019/511004 STSJ Katalunia, 7. aretoa, 2019ko urtarrilaren 24a</b> ) zalantzan jartzen du pisu turistiko baten jarraitutasuna pisua salduz gero; hortaz, garrantzitsua da jarduera turistikoaren debekua inskribatzea. <sup>73</sup>		
--	--	---	--	--

<b>74</b>	<b>Noiz esan daiteke bizitegi erabilera duen etxebizitza batean etxebizitza turistiko bati lotutako legez kanpoko jarduera edo jarduera klandestino bat gauzatzen ari dela?</b>	<b>Erabilera urbanistiko klandestinoztat</b> edo/eta jakinarazi gabeko jardueratzat jotzen dira Eusko Jaurlaritzak eta Udalak eskatzen dituzten beharrezko titulu administratibo gaitzaileak eduki gabe egiten diren edo egin diren jarduera guztiak, eta, edonola ere, legezatzeko baldintza orokorrak betetzen ez dituzten jarduerak.		
-----------	---	---	--	--

## Hondakinen bilketa

<b>75</b>	<b>Hondakinak biltzeko sistemaren ezaugarri bereziak.</b>	Parte Zaharrean (Kaia, barneko Parte Zaharra eta Ensantxea) hondakinak uzteko bi modu daude 2014. urtearen amaieratik: bat <b>egoiliarrentzat</b> eta beste bat <b>profesionalentzat (merkataritza eta ostalaritza) eta elkarte gastronomikoentzat</b> .		
-----------	---	--	--	--

<b>76</b>	<b>Zer ordutegi daude, bizilagunek hondakinak ateratzeko?</b>	<p><b>Materia organikoa:</b> txipa duen txartelarekin, egunean 24 orduz eta astean 7 egunez.</p> <p><b>Errefusa:</b> egunean 24 orduz eta astean 7 egunez, edukiontzi espezifikoetan.</p> <p><b>Ontzi arinak eta papera/kartoia:</b> egunean 24 orduz eta astean 7 egunez, edukiontzi espezifikoetan.</p> <p><b>Beira:</b> 08:00ak eta 22:00ak bitartean bota beharko da, asteko edozein egunetan, bizilagunei zaratak eta eragozpenak saihesteko.</p> <p>Hondakinak egunero bilduko dira, urteko gau guztietan, salbuespen bakarrak izango direlarik abenduaren 24tik 25erako gaua (Gabon gaua) eta abenduaren 31tik urtarrilaren 1erakoa (Urte Berria).</p>		
-----------	---	---	--	--

<sup>73</sup> EDJ 2019/511004 STSJ, 7. aretoa, 2019ko urtarrilaren 24a. "...pisu turistiko gisa gaitutako etxebizitza bat erosi arren eta aurreko titularrak dagokion baimen administratiboa izanik ere, komunitateak estatutuak aldatu baditu aurrerantzean pisuak turismo jardueretarako erabiltzea debekatzeko eta murriztapen hori behar bezala erregistratu badu Jabetzaren Erregistroan, inolako salbuespen iraunkorrik gabe ezein pisurentzat, jabe berriak ezingo du jarduera hori gauzatu, eta bertan behera utzi beharko du, komunitateak hala eskatuz gero...".

Zk.	Galderak	Kaia	Barneko Parte Zaharra	Ensantxea
-----	----------	------	-----------------------	-----------

77	Non utzi behar dira hondakinak?	<p><b>kontainerren kokapena</b></p> <table border="0"> <tr> <td>beira</td><td>●</td> <td>errefusa</td><td>●</td> </tr> <tr> <td>papera</td><td>●</td> <td>olioa</td><td>●</td> </tr> <tr> <td>plastiko</td><td>●</td> <td>organikoa</td><td>●</td> </tr> <tr> <td>pilak</td><td>●</td> <td>oihalak</td><td>○</td> </tr> </table> 			beira	●	errefusa	●	papera	●	olioa	●	plastiko	●	organikoa	●	pilak	●	oihalak	○
beira	●	errefusa	●																	
papera	●	olioa	●																	
plastiko	●	organikoa	●																	
pilak	●	oihalak	○																	
78	Altzarien eta tamaina handiko gaien bilketa	<p><b>Etxebizitzetatik datozen tamaina handiko gaiak</b> errefusaren <b>edukiontzia orokorraren albo batean</b> jarri behar dira, baina <b>espaloietan ibili behar duten oinezkoen pasabidea edo errepidetik igaro behar duten ibilgailuen zirkulazioa galarazi gabe</b>, ahalik eta eragozpen gutxienak sortuz, edo <b>garbiguneetara eraman ahal izango dira</b>, bestela.</p> <p><b>Egoera onean</b> egonik berrerabili daitezkeen altzariak <b>bigarren eskuko azoketan sal daitezke</b> (<a href="#">Donostiatruk</a>), edo merkatu birtualetan (<a href="#">merka2sanmarcos</a>...). Era berean, <b>doan eskain daitezke</b> hainbat plataformatan (<a href="#">nolotiro.org</a>), edo <a href="#">Emaus Fundaziora</a> deituta.</p> <p>Errefusaren edukiontzia 100 metro baino gutxiagora dutenek, <b>astelehen, asteazken eta ostiraletan</b> utziko dituzte hondakin horiek, <b>21:30etik 22:30era bitartean</b>; salbuespen izango dira abenduaren 24a eta 31, hurrengo egunetan ez delako egongo hondakinak biltzeko udal zerbitzurik.</p> <p><b>Errefusaren edukiontzia 100 metro baino gehiagora duten erabiltzaileek</b> eta altzariak eta tamaina handiko gaiak edukiontzia <b>eraren</b> albo batera eramateko zailtasunak dituzten erabiltzaileek <b>harremanetan jarri behar dute udal zerbitzuekin, haiek erretiratzea antola dezaten</b>. (Telefonia: 943 845 033).</p>																		
79	Etxean sortutako hondakin arriskutsuen bilketa	<p><b>Furgonetan</b> entregatu behar dira, osagai desberdinak nahasi gabe, bereziki likidoak.</p> <p>Furgoneta <b>Boulevard</b>en dago:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Hilabeteko lehenengo asteazkenean eta hirugarrenean</b>, 16:00etatik 19:30era.</li> <li>• <b>Hilabeteko bigarren ostegunean eta azkenekoan</b>, 09:00etatik 13:00etara.</li> </ul>																		

Zk.	Galderak	Kaia	Barneko Parte Zaharra	Ensantxea
-----	----------	------	-----------------------	-----------

80

Merkatari eta ostalarientzako bilketa.  
Hondakin mota bakoitza ateratzeko ordutegiak eta modua.

Auzoko ostalaritza eta merkataritzako establezimenduek eta elkarte gastronomikoez sortzen dituzten hondakinak establezimenduz establezimendu jasotzen dira. Udalak materia organikoa bereizteko behar den materiala eta ontzi arinak ematen dizkie. Sukaldeko olio erabilia kudeatzaile baimendu bati eman behar zaio.

**NEGUAN**

**PARTE ZAHARREKO HONDAKINEN BILKETA  
OSTALARI, DENDARI ETA ELKARTE GASTRONOMIKOENTZAT**

Recogida de residuos en la Parte Vieja para hostelería, comercios y sociedades gastronómicas.

	ORGANIKOAK ORGÁNICO		ONTZIAK ENVASES		BEIRA VIDRIO		PAPERA ETA KARTOIA PAPEL Y CARTÓN		ERREFUSA FRACCIÓN RESTO	
	NOIZTIK UTZI DEPOSITO	NOIZTIK JASO RECOGIDA	NOIZTIK UTZI DEPOSITO	NOIZTIK JASO RECOGIDA	NOIZTIK UTZI DEPOSITO	NOIZTIK JASO RECOGIDA	NOIZTIK UTZI DEPOSITO	NOIZTIK JASO RECOGIDA	NOIZTIK UTZI DEPOSITO	NOIZTIK JASO RECOGIDA
ASTELEHENA LUNES	16:00	16:30	09:30	10:00	09:30	10:00	09:30	10:15	9:30	10:00
ASTEARTEA MARTES	16:00	16:30	09:30	10:00			09:30	10:15		
ASTEAZKENA MIÉRCOLES	16:00	16:30			09:30	10:00	09:30	10:15		
OSTEGUNA JUEVES	16:00	16:30	09:30	10:00			09:30	10:15	09:30	10:00
OSTIRALA VIERNES	23:30	00:00			09:30	10:00	09:30	10:15		
LARUNBATA SÁBADO	23:30	00:00	09:30	10:00	09:30	10:00	09:30	10:15	09:30	10:00
IGANDEA DOMINGO	16:00	16:30			09:30	10:00				

NOLA  
CÓMO

Norbere edukiontzi marroian En contenedor marrón propio	Poltsa hori normalizatuetan En bolsas amarillas normalizadas	Norbere edukiontzi berdean En contenedor verde propio	Tolestuta Plegado	Poltsa gris normalizatuetan En bolsas grises normalizadas
--	---	--	-------------------	--

HONDAKIN GUZTIAK GAIKA JASOKO DIRA ESTABLEZIMENDUETAN. TODAS LAS FRACCIONES SE RECOGEN DE ESTABLECIMIENTO EN ESTABLECIMIENTO.

**UDARAN**

**PARTE ZAHARREKO HONDAKINEN BILKETA  
OSTALARI, DENDARI ETA ELKARTE GASTRONOMIKOENTZAT**

Recogida de residuos en la Parte Vieja para hostelería, comercios y sociedades gastronómicas.

	ORGANIKOAK ORGÁNICO		ONTZIAK ENVASES		BEIRA VIDRIO		PAPERA ETA KARTOIA PAPEL Y CARTÓN		ERREFUSA FRACCIÓN RESTO	
	NOIZTIK UTZI DEPOSITO	NOIZTIK JASO RECOGIDA	NOIZTIK UTZI DEPOSITO	NOIZTIK JASO RECOGIDA	NOIZTIK UTZI DEPOSITO	NOIZTIK JASO RECOGIDA	NOIZTIK UTZI DEPOSITO	NOIZTIK JASO RECOGIDA	NOIZTIK UTZI DEPOSITO	NOIZTIK JASO RECOGIDA
ASTELEHENA LUNES	16:00	16:30	*08:30	09:00	*08:30	09:00	09:30	10:15	9:30	10:00
ASTEARTEA MARTES	16:00	16:30	*08:30	09:00			09:30	10:15		
ASTEAZKENA MIÉRCOLES	16:00	16:30			*08:30	09:00	09:30	10:15		
OSTEGUNA JUEVES	16:00	16:30	*08:30	09:00			09:30	10:15	09:30	10:00
OSTIRALA VIERNES	*16:00 23:30	16:30 00:00			*08:30	09:00	09:30	10:15		
LARUNBATA SÁBADO	23:30	00:00	*08:30	09:00	*08:30	09:00	09:30	10:15	09:30	10:00
IGANDEA DOMINGO	16:00	16:30	*08:30	09:00	*08:30	09:00				

NOLA  
CÓMO

Norbere edukiontzi marroian En contenedor marrón propio	Poltsa hori normalizatuetan En bolsas amarillas normalizadas	Norbere edukiontzi berdean En contenedor verde propio	Tolestuta Plegado	Poltsa gris normalizatuetan En bolsas grises normalizadas
--	---	--	-------------------	--

HONDAKIN GUZTIAK GAIKA JASOKO DIRA ESTABLEZIMENDUETAN. TODAS LAS FRACCIONES SE RECOGEN DE ESTABLECIMIENTO EN ESTABLECIMIENTO.

\* Se incrementa la frecuencia de recogida de las diferentes fracciones de basura desde el día 15 de junio hasta el 30 de septiembre de 2019. En la fracción vidrio y envases el horario se modifica.

Zk.	Galderak	Kaia	Barneko Parte Zaharra	Ensantxea
-----	----------	------	-----------------------	-----------

## Zarata. Kutsadura akustikoa

81	Etxean egonda, zein da jasan beharreko gehienezko zarata maila (dB-dezibel)?	<p>-<b>Ade Zaharra Birgaitzeko Planaren</b> arabera, ostalaritzako jarduerak ezingo dute zaratengatik eragozpenik eragin ez etxebizitzetan, ez ondoko lokaletan. Ondoko etxebizitzetara transmititu daitezkeen <b>gehienezko mailak</b> finkatuta daude (<b>neurketak leiho irekiekin</b> egiten dira):<sup>74</sup></p> <table border="1"> <thead> <tr> <th></th> <th>Egunez (8:00-22:00)</th> <th>Gauetz (22:00-8:00)</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td><b>Egongelak</b></td> <td>45 dB (A)</td> <td>35 dB (A)</td> </tr> <tr> <td><b>Logelak</b></td> <td>40 dB (A)</td> <td>32 dB (A)</td> </tr> <tr> <td><b>Zerbitzu eta zona komunak</b></td> <td>45 dB (A)</td> <td>45 dB (A)</td> </tr> </tbody> </table>			Egunez (8:00-22:00)	Gauetz (22:00-8:00)	<b>Egongelak</b>	45 dB (A)	35 dB (A)	<b>Logelak</b>	40 dB (A)	32 dB (A)	<b>Zerbitzu eta zona komunak</b>	45 dB (A)	45 dB (A)																
			Egunez (8:00-22:00)	Gauetz (22:00-8:00)																											
<b>Egongelak</b>	45 dB (A)	35 dB (A)																													
<b>Logelak</b>	40 dB (A)	32 dB (A)																													
<b>Zerbitzu eta zona komunak</b>	45 dB (A)	45 dB (A)																													
<p>-Zaratak eta bibrazioek sortutako kutsadura akustikoari nola aurre egin ezartzen duen Donostiako <b>udal ordenantzan</b> honako muga hauek aipatzen dira:<sup>75</sup></p> <table border="1"> <thead> <tr> <th rowspan="2"></th> <th colspan="2">Kanpoaldea</th> <th colspan="2">Barnealdea</th> </tr> <tr> <th>Eguna</th> <th>Gaua</th> <th>Eguna</th> <th>Gaua</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td><b>Bizitegia</b></td> <td>60 dB (A)</td> <td>50 dB (A)</td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td><b>-Logelak eta egongela</b></td> <td></td> <td></td> <td>37 dB (A)</td> <td>27 dB (A)</td> </tr> <tr> <td><b>-Barneko beste gune batzuk</b></td> <td></td> <td></td> <td>40 dB (A)</td> <td>30 dB (A)</td> </tr> <tr> <td><b>-Gune komunak</b></td> <td></td> <td></td> <td>45 dB (A)</td> <td>40 dB (A)</td> </tr> </tbody> </table> <p>-<b>Osasunaren Mundu Erakundeak (OME)</b> muga hauek ez gainditzea gomendatzen du: gauetz, 55 dBA, eta egunez, 65 dBA.</p>			Kanpoaldea		Barnealdea		Eguna	Gaua	Eguna	Gaua	<b>Bizitegia</b>	60 dB (A)	50 dB (A)			<b>-Logelak eta egongela</b>			37 dB (A)	27 dB (A)	<b>-Barneko beste gune batzuk</b>			40 dB (A)	30 dB (A)	<b>-Gune komunak</b>			45 dB (A)	40 dB (A)	
	Kanpoaldea		Barnealdea																												
	Eguna	Gaua	Eguna	Gaua																											
<b>Bizitegia</b>	60 dB (A)	50 dB (A)																													
<b>-Logelak eta egongela</b>			37 dB (A)	27 dB (A)																											
<b>-Barneko beste gune batzuk</b>			40 dB (A)	30 dB (A)																											
<b>-Gune komunak</b>			45 dB (A)	40 dB (A)																											
82	Zaratatsua da Parte Zaharra?	<p>-Bai Udalak 2014-2015ean eskatutako Zaratzen Mapa<sup>76</sup>, bai 2017an egindako NOISMART<sup>77</sup> azterlanak egiaztatu dute <b>EZ DIRELA ERRESPETATZEN ORDENANTZEK ezartzen dituzten KALITATE AKUSTIKOKO HELBURUAK, eta ARRISKUAN jartzen direla gure ONGIZATEA ETA OSASUNA.</b></p>																													
83	Zer diote Parte Zaharraren barnealdean egindako azterlanek?	<p><b>ZARATEN MAPA 2015</b> (barneko Parte Zaharra)</p> <p>- Gure auzoak normaltzat jotzen den tipologiaren bestelakoa dauka; izan ere, gauetz, atsedena bermatzeko zarata mailak murriztu beharrean, zarata handitu egiten da, bereziki asteburuetan.</p> <p>- <b>Gaueko zarata mailek gainditu egiten dituzte etxebizitzadun gune akustiko baterako ezarrita dauden kalitate akustikoko helburuak</b> (Ln=55 dB(A)), 213/2012 Dekretuak ezarriak.</p>	<p><b>NOISMART AZTERLANA 2017</b> (barneko Parte Zaharra)</p> <p>-Zarata baliokidea (batezbestekoa) <b>67,5 dBA-tik 81,2 dBA-ra bitartekoa da</b>, eta, hortaz, <b>gainditu egiten dira udal araudiak ezarrita dituen balioak.</b></p> <p>- Gaueko zarataren batezbesteko indize baxuenak 57,1 dBA-koak dira, eta altuenak, berriz, 68,4 dBA-koak. Horrek adierazten du <b>etxe guztietan arazoak izan ditzaketela lo egiteko.</b></p>																												

<sup>74</sup> Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Berezia, GAO, 1997-01-22. 83-4. art.

<sup>75</sup> Zaratek eta bibrazioek sortutako kutsadura akustikoaren kontra Udalak zer egin behar duen arautzen duen ordenantza. GAO 197 (2000-10-17). 1. Eranskina.

<sup>76</sup> [Gaueko aisiaren zarata mapa 2015](#)

<sup>77</sup> [Eguneko aisiaren zarata NOISENSE 2017](#)

Zk.	Galderak	Kaia	Barneko Parte Zaharra	Ensantxea
-----	----------	------	-----------------------	-----------

		<p>- Neguan, aisia jardueradun gauak asteburuetera mugatzen dira, hau da, astean 2-3 egun dira, <b>baina udan gehiago dira, astean 4 eta 5 egun</b>. Horrez gainera, asteburuetera asteko gaineko egunetan baino beranduago jaisten da zarata maila.</p> <p>- Helburutzat ezarrita dagoen maila (55dBA) maiz gainditzen dela ikusirik eta lortutako mailak kontuan hartuta, seguru asko ez dira betetzen kalitate akustikoko helburuak, urtean 11 egunetan baino gehiagotan gainditzen direlako 58 dB(A)-k eta urteko egun guztietako batezbestekoagatik.</p>	<p>- <b>Loa etengabe eten daiteke, eta zaila izan daiteke lo egitea</b>, sonometroekin egindako azterketak irauin zuten 22 egunetan gaueko 25.521 alarma erregistratu baitziren, 193 ordu, guztira. (Alarmek gutxienez 3 segundoz gauez 65 dBA-tik gorako zarata indizeak eta egunez 70 dBA-tik gorakoak izaten diren uneak jasotzen dituzte).</p> <p>- Asteburuak, atsedenerako une bereziki egokiak, soinu indize handieneko egunak dira. Gauez, gorakadak eta alarmak izaten dira, bereziki 23:00etatik 03:00etara bitarte, <b>ostalaritzako lokalak ixteko ordutegiekin bat datozen uneetan</b>.</p> <p>- <b>Etxebizitzetako patioak biltegi gisa erabiltzeak zarata desatsegina eragiten du, eta, ondorioz, ez dira betetzen kalitate akustikoko helburuak</b>; horixe egiaztatu ahal izan da NARRIKA kalean, non batezbesteko zarata indizea 58,2 dBA-koa den.</p>																		
<b>84</b>	<b>Zenbat dBA dituzte soinu arruntek?</b>		<table border="1"> <tbody> <tr> <td>Txoriak kantari</td> <td>20 dBA</td> </tr> <tr> <td>Ikasteko gela</td> <td>35 dBA</td> </tr> <tr> <td>2 lagunen arteko elkarrizketa</td> <td>55 dBA</td> </tr> <tr> <td>Xurgagailua</td> <td>70 dBA</td> </tr> <tr> <td>10 laguneko bulegoa</td> <td>75 dBA</td> </tr> <tr> <td>Zaborra biltzeko kamioia</td> <td>85 dBA</td> </tr> <tr> <td>Errepideko trafikoa</td> <td>90 dBA</td> </tr> <tr> <td>Klaxona</td> <td>95 dBA</td> </tr> <tr> <td>Diskoteka, rock kontzertua</td> <td>110-120 dBA</td> </tr> </tbody> </table>	Txoriak kantari	20 dBA	Ikasteko gela	35 dBA	2 lagunen arteko elkarrizketa	55 dBA	Xurgagailua	70 dBA	10 laguneko bulegoa	75 dBA	Zaborra biltzeko kamioia	85 dBA	Errepideko trafikoa	90 dBA	Klaxona	95 dBA	Diskoteka, rock kontzertua	110-120 dBA
Txoriak kantari	20 dBA																				
Ikasteko gela	35 dBA																				
2 lagunen arteko elkarrizketa	55 dBA																				
Xurgagailua	70 dBA																				
10 laguneko bulegoa	75 dBA																				
Zaborra biltzeko kamioia	85 dBA																				
Errepideko trafikoa	90 dBA																				
Klaxona	95 dBA																				
Diskoteka, rock kontzertua	110-120 dBA																				
<b>85</b>	<b>Zein dira zarata iturriak?</b>	<p><b>-Iturri nagusia KALEAN PILATUTAKO JENDEA DA, OSTALARITZAREN ondoriozkoa, bai terrazetan biltzen dena, bai bide publikoan kontsumitzen duena.</b></p> <p>Gure auzoko ostalaritza dentsitate neurritz kanpoko (51,6 establezimendu 1.000 biztanleko, udalerriko batezbestekoa 7,1 izanik) eta egungo ordutegiak bateraezinak dira gaueko atsedenerekin eta osasunarekin.</p> <p><b>-Barneko patioak ostalaritzako jardueretarako erabiltzea</b>  <b>-Garbiketa makinak zarata goizetan</b>  <b>-Beira edukiontziak jasotzean sortutako zarata</b>  <b>-Xurgagailu industrialen burrunba</b></p>																			
<b>86</b>	<b>Zer neurri hartu ditu Udal Gobernuak azken urteetan gu babesteko?</b>	<p><b>Honako hauetara mugatu da:</b></p> <p>-2014an zarata mapa egin zuen, baina gaurdaino ez ba ebaluazio publikorik egin, ezta neurri zuzentzailerik hartu ere.</p> <p>-2015ean "Eskerrik asko tonua jaisteagatik" kanpaina egin zuen, intentsitate txikikoa (Inork ezagutu zuen kanpaina?). Ez zuen eraginik izan, ez ebaluaziorik, ez jarraipenik.</p> <p>-Jai jarduerak berrantolatatu, kaleko jarduerak mugatu eta kontzertuen dezibelioak murriztu ditu.</p> <p>-Leihoak aldatzeko diru laguntzak eman ditu.</p>																			
<b>87</b>	<b>Zer egin daiteke zarata maila hobetzeko?</b>	<p>- <b>1. Araudia bete.</b></p> <p>- <b>2. Parte Zaharra Babes Akustiko Bereziko Gunetzat (BAG)* izendatu</b>, honako hauetan aurreikusita dagoen moduan: <i>Zaratek eta bibrazioek sortutako kutsadura akustikoaren kontra Udalak zer egin behar duen arautzen duen ordenantza</i><sup>78</sup>; EAEO 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa<sup>79</sup>; Espainiako Gobernuaren 37/2003 Legea, Zaratarena<sup>80</sup>, eta 2002/49EC Europako Zuzentaraua.<sup>81</sup></p>																			

<sup>78</sup> Zaratek eta bibrazioek sortutako kutsadura akustikoaren kontra Udalak zer egin behar duen arautzen duen ordenantza. GAO 197. zk. (2000-10-17).

Zk.	Galderak	Kaia	Barneko Parte Zaharra	Ensentxea
-----	----------	------	-----------------------	-----------

88		<p><b>* Zer da BABG bat?</b> Kalitate akustikoko helburuak gainditzen diren guneak dira, osasun arazoak sortzen dituztenak.</p> <p><b>Zergatik izendatu eremu bat BABG?</b> Hori eginez gero Udala behartuta dagoelako Eremuko Plan Akustikoa izeneko ekintza plan bat ezartzera; <b>plan horrek barne hartzen ditu kutsadura akustikoa murrizteko esku hartze batzuk, helburutzat dutenak kalitate akustikoko helburuak erdiestea.</b> Era berean, Ekintza Planean ezarritako helburuen betetze maila ebaluatzeko Jarraipen Plana ere zehaztu behar du.</p> <p><b>Zarata iturri nagusia ostalaritza jarduera biziaren ondorioz jendea kalean pilotzea bada,</b> interesgarria izango litzateke udal gobernuari gogora ekartzea zaratek eta bibrazioek sortutako kutsadura akustikoaren kontra zer egin arautzen duen <b>ordenantzak</b><sup>82</sup> <b>onartzen duela terrazak edo mahaitxoak jartzeak eragozpenak sor ditzakeela.</b> Hala, 25. artikulua honako hau zehazten du:  <b>"1. Jarduera nagusiak baimenduta daukan ordutegia edozein izanik ere, terrazen eta kanpoko mahaien erabilera Udal honetako Ondarearen Atalak baimentzen duen ordutegira mugatuko da, beti ere, eta bere kokapenaren ezaugarri partikularrak direla-eta, ordutegia murriztu ahal izango da, bizilagunentzat gogaikarria izan daitekeen zarata sortzen denean".</b></p>		
	<b>Kaleko jarduerak badute mugarik?</b>	<p>1. <b>Kalean.</b> Parte Zaharrean <b>ezin da inolako emankizunik egin kalean, puntu jakin batzuetan izan ezik:</b></p> <p>a) Zuloaga plazan.  b) Bretxa plazan.  c) Boulevarden (azoka parean musikaririk gabe), Turismo bulegoaren parean eta Boulevard - San Jeronimo izkinan.</p> <p><b>Baldintza hauek bete behar dira:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ordutegia mugatua</b> da: 10:00-20:00, lanegunetan, eta 10:00-21:00, ostiral eta jai bezperetan.</li> <li>• <b>5 aktore baino gutxiagok</b> parte hartu behar dute.</li> <li>• Anplifikadoreek <b>intentsitate mugatua</b> izango dute: 10 W.</li> </ul> <p>2. <b>Terrazetan. Terrazetan zuzeneko</b> musika emanaldiak, aurrez baimenduak.<sup>83</sup></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Terrazan bertan edo ondoko eremuan kokatuko dira.</li> <li>• Astean gehienez baimen bat emango da, 100 metroko erradioan kale berean.</li> <li>• Gehienez 2 musikariko taldeak izango dira.</li> <li>• Parte Zaharrean ezin da amplifikadorea erabili.</li> <li>• Terrazako altzariak ezingo dira kendu bertan publikoa egon dadin.</li> <li>• Emanaldiek 22:00etarako amaituta egon behar dute, lanegunetan, eta 23:00etarako, ostiral, larunbat eta jai bezperetan.</li> </ul>		

<sup>79</sup> [213/2012 DEKRETUA, apirilaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa. EHAA, 222. zk. \(2012-11-16\).](#)

<sup>80</sup> [37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratarena. BOE, 276. zk. \(2003-11-18\).](#)

<sup>81</sup> [2002/49/CE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2002ko ekainaren 25ekoa, inguruko zarataren ebaluazioari eta kudeaketari buruzkoa.](#)

<sup>82</sup> Zaratek eta bibrazioek sortutako kutsadura akustikoaren kontra Udalak zer egin behar duen arautzen duen ordenantza. GAO, 197. zk. (2000-10-17).

<sup>83</sup> [Donostiako jabetza eta erabilera publikoko lurzuok ostalaritzarako nola okupatu arautzen duen ordenantza. 13-8. art.](#)

Terrazetan zuzeneko musika emanaldiak baimentzeko irizpideak, Bide Publikoko Batzordea. 2015eko abenduaren 2a. Xehetasuna 2016ko azaroaren 18a. Xehetasuna 2018-10.

Zk.	Galderak	Kaia	Barneko Parte Zaharra	Ensantxea
-----	----------	------	-----------------------	-----------

<b>89</b>	<b>Zer egin dezaket zarata handia badago?</b>	1- <b>Udaltzaingoari deitu</b> (092) edo, hala badagokio, <b>Ertzaintzari</b> (943-538606). 2- <b>Udalean salatu</b> (Udalinfo, Easo kalea 41). 3- <b>Bizilagunen Elkarteari jakinarazi, jarraipena egin ahal izan dezan</b> (619303346).		
<b>90</b>	<b>Zaratarekin lotutako beste kontu batzuk.</b>	<b>Ikus hauek:</b> 1, 10, 11, 12, 15, 16, 17, 27, 28, 29, 37, 51, 52, 53, 63, 64, 65, 66, 67.		

A - 17. artikulua. 1. zerrenda: Babes berezia.

- San Bizente eliza, Narrika kalea 26.
- Koruko Andre Mariaren Basilika, Abuztuaren 31 kalea.
- San Telmo Museoa (komentua), Zuloaga plaza 1.
- Santa Teresa komentua, Elbira Zipitria andereñoaren bidea 1, 3.
- Zubibidea – Portu kalearen gaineko zubia.
- Udal Liburutegia (udaletxe zaharra), Konstituzio plaza 1.
- Konstituzio plazaren sarbideko arkuak.
- Errege-erregina Katolikoaren harresia, Portaleta barne.
- Apaizen pasealekuko harresia.
- Mariren oroigarria, Kaia.
- San Bizente iturria, Abuztuaren 31 kalea.
- Lasala plazako iturria (lehoia), Lasala plaza.
- Errege-erregina Katolikoaren harresiaren ondoko iturria, Kaia.
- Kainoieta iturria, Valle Lersundi plaza.

-20. artikulua. 2. zerrenda: Babes ertaina.

- San Miguel Elizaren BHIP, Kanpandegi 12.
- Fermín Calbetón kaleko 25eko eraikin publikoa.
- Goikoa jauregia, Ijentea kalea 6.
- Konstituzio plazako bizitegi-multzoa, Iñigo kaleko 2ko etxea.
- Konstituzio plazako bizitegi-multzoa, Arrandegi kaleko 1eko etxea.
- Konstituzio plazako bizitegi-multzoa, Joan De Bilbao kaleko 13, 15, 17ko etxeak.
- Konstituzio plazako bizitegi-multzoa, Konstituzio Plazako 4, 5, 6, 7, 11, 12, 13, 14, 15eko etxeak.
- Lasala plazako 3ko bizitegi-eraikina.
- Antzoki Zaharra, Kale Nagusia 1Y.
- Kaiko Ermita, Kaiko pasealekua 2.
- Untzi Museoa, Kaiko pasealekua 24.
- Aquarium, Carlos Blasco de Imaz plaza.
- Trinitate plazako eraikuntzak.

- 23. artikulua. 3. zerrenda: Oinarrizko babes.

- Aingeru kaleko 3, 5, 7, 8, 9, 11, 13ko bizitegi-eraikinak.
- Boulevard zumardiko 2, 6, 14, 22, 24, 26, 4, 10, 16, 18, 20ko bizitegi-eraikinak.
- Kanpandegi kaleko 1, 3, 5, 7, 8, 9, 10, 11ko bizitegi-eraikinak.
- Gastronomiazko Euskal Anaiarte, Elbira Zipitria Andereñoaren kalea 2.
- Urgull Guardetxea, Elbira Zipitria Andereñoaren kalea 7.
- Enbeltran kaleko 2, 3, 6, 8, 10, 12, 14, 16ko bizitegi-eraikinak.
- Esterlines kaleko 1, 2, 3, 4-6, 5, 10, 14, 15, 16, 17ko bizitegi-eraikinak.
- Fermín Calbetón kaleko 3, 4, 5, 7, 6, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 26, 27, 28, 29, 30, 33, 34, 35, 37, 38, 39, 40, 41, 42, 45, 48, 50, 52, 54ko bizitegi-eraikinak.
- Ijentea kaleko 2, 4ko bizitegi-eraikina.
- Iñigo kaleko 1, 4, 5, 7, 9, 8, 10eko bizitegi-eraikinak.
- Joan De Bilbao kaleko 4, 6, 8, 10, 12, 14ko bizitegi-eraikinak.
- Koruko Ama Birjinaren kaleko 2, 4, 8ko bizitegi-eraikinak.
- Lasala plazako 1, 5eko bizitegi-eraikinak.
- Lasala plazako 2ko eraikin publikoa.
- Mari kaleko 19, 21eko bizitegi-eraikina.
- Mari kaleko 7ko bizitegi-eraikina.
- Kale Nagusiko 2, 3, 5, 6, 7, 8, 9, 11, 12, 13, 14, 15, 17, 18, 19, 21eko bizitegi-eraikinak.
- Petit Casino Kursaal, Kale Nagusia 1.
- Kaiko 1, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 25, 26, 27, 28, 29ko bizitegi-eraikinak.
- Arrantzaleen Kofradia, Kaiko pasealekua 23.
- Narrika kaleko 1, 3, 7, 9, 10, 15, 18, 21, 22, 23, 24, 27, 29, 31, 33ko bizitegi-eraikinak.
- Arrandegi kaleko 4, 5, 6, 8, 9, 10, 11, 12ko bizitegi-eraikinak.
- Konstituzio plazako 17ko bizitegi-eraikina.
- Portu kaleko 3, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12, 14, 15, 17, 19, 20, 22ko bizitegi-eraikinak.
- San Bizente kaleko 3, 5, 7, 9ko bizitegi-eraikinak.
- San Joan kaleko 1, 5, 7, 9, 11, 13, 15eko bizitegi-eraikinak.

- 
- San Lorenzo kaleko 2, 4, 6, 8, 10, 12, 13, 17ko bizitegi-eraikinak.
  - San Jeronimo kaleko 3, 6, 7, 8, 9, 11, 13, 14, 17, 19, 20, 21, 22, 23, 25eko bizitegi-eraikinak.
  - Sarriegi plazako 1, 3, 4, 6, 7, 8, 9, 10eko bizitegi-eraikinak.
  - Gaztelubideko 1, 5eko bizitegi-eraikinak.
  - Abuztuaren 31 kaleko 3, 5, 7, 9, 11, 13, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 22, 24, 25, 26, 27, 28, 29, 31, 32, 33, 34, 36, 10, 12, 14, 30, 38, 40, 42, 44ko bizitegi-eraikinak.
  - Pasealeku Berriko z.g.ko Argazkilari Elkartearen eraikina

- 26. artikulua. 4. zerrenda: Babes morfologikoa.

- Enbeltran kaleko 4ko bizitegi-eraikina.
- Kale Nagusiko 16ko bizitegi-eraikina.
- Boulevard zumardiko 4 eta 10eko bizitegi-eraikina.
- Kaiko 3, 3 bis 4, 7, 8, 30, 31, 32, 33ko bizitegi-eraikinak.

- 29. artikulua. 5. zerrenda: Eraikin diskordanteak.

- Mari kaleko 14ko bizitegi-eraikina.
- Lasala plaza 4ko bizitegi-eraikina.

